



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko irailaren 10a

97. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Cintruenigoko Udalarari buruzko fiskalizazio-txostena, 2011ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Cintruenigoko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2011ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 27an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Kontuen Ganberak Cintruenigoko Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2011ko ekitaldikoa, hona ERABAKIA:

1. Adieraztea jakitun dela txosten horren edukari buruz.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Cintruenigoko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2011ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- | | |
|--|---|
| <p>I. Sarrera (3. or.).</p> <p>II. Helburua (7. or.).</p> <p>III. Norainokoa eta mugak (8. or.).</p> <p>IV. 2011ko kontu orokorrari buruzko iritzia (9. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.1. Udala eta erakunde autonomoak (9. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.2. Cintruénigo de Servicios Municipales SL” sozietatea (13. or.).</p> <p>V. Udalaren 2011ko kontu orokorraren laburpena (14 or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.1. Udalaren eta erakunde autonomoen 2011ko betetze bateratuaren egoera-orri laburtua (14 or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.2. Udalaren aurrekontuaren likidazioa 2011n (15 or.).</p> | <p style="padding-left: 20px;">V.3. Udalaren 2011ko aurrekontu-emaiza (16. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.4. Udalaren diruzaintza-gerakina 2011ko abenduaren 31n (16. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.5. Udaleko egoera-balantzea 2011ko abenduaren 31n (17. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.6. Udalaren 2011ko emaitza ekonomikoa (18. or.).</p> <p>VI. Udalari eta haren menpeko erakunde autonomoei buruzko iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (19. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.1. Udalari buruzko alderdi orokorrak (19. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.2. Udaleko langile-gastuak (20. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.3. Udalaren ondasun arruntetan eta zerb-itzuetan egindako gastua (24. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.4. Udalaren transferentziengatiko gastuak (26. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.5. Udalaren inbertsioengatiko gastuak (29. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.6. Udalaren aurrekontuko diru-sarrerak (32. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.7. Hirigintza (34. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.8. San Francisco de Asís zahar-etxea (36. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.9. Uren Udal Batzarraren Patronatua (40. or.).</p> <p>VII. Cintruénigo de Servicios Municipales, S.L. (45. or.).</p> <p>Cintruenigoko Udaleko Alkateak behin-behineko txostenari buruz aurkeztutako alegazioak (49. or.).</p> <p>Kontuen Ganbararen erantzuna, Cintruenigoko Udaleko Alkateak behin-behineko txostenari aurkeztu dizkion alegazioei dagokiena (51. or.).</p> |
|--|---|


I. SARRERA

Nafarroa-Bai parlamentu-taldeak eskatuta, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak erabaki zuen Kontuen Ganberari eskatzea Cintruénigoko Udalari eta haren San Francisco de Asís zahar-etxeari buruzko fiskalizazio txosten bat dezan.

Eskari hori betetzeko, Kontuen Ganberaren 2012rako urteko programan sartu da Cintruénigoko Udalaren eta haren sektore publikoaren 2011ko kontu orokorraren arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa.

Udalak, 2011ko urtarrilaren 1ean, 7.777 biztanle dauzka. Horietatik, ehuneko 20 inguru atzeritarrak dira. Udalerraren guztizko azalera 3,73 km² hartzen ditu, eta haietatik 3,4 km² landalurrak dira.

Udalaren sektore publikoa bi erakunde autonomok (EEAA) eta merkataritza-sozietate publiko batek osatzen dute, hurrengo irudian erakusten dugun bezala:



2011ko ekitaldia ixtean, erakunde horien guztien funtsezko datu ekonomikoak honako hauek ziren:

- Administrazioaren sektore publikoa. Ondoren, Udalaren eta haren erakunde autonomoen adierazle nagusiak ematen ditugu.

Entitatea	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak 2011-12-31n
Udala	5.650.423	6.113.763	85
Uren Udal Batzarra	609.673	730.420	-
San Francisco de Asís zahar-etxea	1.606.697	1.543.063	42,93 (*)
Bateratzearen doitzeak	-146.966	-146.966	
Bateratua, guztira	7.719.827	8.240.280	123,38

(*) Lanaldi osoa dutenen pareko langileak

Udalak honako ekarpenak egin dizkie bere erakunde autonomoi:

a) Uren Batzarrari, zeinak behe presioko ur-horniduraren zerbitzua ematen baitu, 146.966 euroko diru-laguntza 2011n.

b) Zahar-etxea ez da berariaz agertzen Udalak diru-laguntzak emandakoen artean, nahiz eta Udalak 2011n 97.000 euroko aurrerakina eman zion abenduko nominak ordain zitzan.

• Cintruénigo de Servicios Municipales, SL. Udalak 1991n eratu zuen sozietate hori. Haren bazkide bakarra da, 6.010 euroko ekarpenarekin. Sozietatearen helburu soziala da enkargatzen zaizkion gisa guztietako zerbitzuak ematea, bai eta obra eta konponketa-lan txikiak egitea ere. Praktikan, haren jardura nagusiak dira udal instalazioak garbitzea eta etxezain-zerbitzua ematea. 2011ko gastuak eta diru-sarrerak hurrengo taulan ematen ditugunak dira:

Enpresa publikoa	Diru-sarrerak	Gastuak	Ekitaldiko emaitzak	Langileak 2011-12-31n
Cintruénigo de Servicios Municipales SL	354.716	326.086	28.723	21 (*)

(*) Soilik bost langile lanaldi osoan.

Sozietateak udaletxean du egoitza soziala. 2011n, Udalak funtzionamendurako 319.500 euroko diru-laguntza eman zion. Sozietateak diru-laguntza hori zerbitzuak saltzeagatiko diru-sarrera gisa kontabilizatu zuen.

Gainera, Udalak ondoko mankomunitateetan hartzen du parte:

- Cintruenigoko eta Fiteroko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea.
- Cascante, Fitero eta Cintruenigoko Ur Mankomunitatea, goi presioko ur-hornidurarako.
- Erriberako Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitatea, zeinak etxebizitzak zaharberritzeko eta lazaretoko zerbitzuak ematen baititu.
- Ebroko Kirol Mankomunitatea¹.

Azken batez, 8.000 biztanle ingururi zerbitzua emateko honako egitura du Udalak: bi erakunde autonomo eta udal sozietate bat dauzka eta lau mankomunitatetan hartzen du parte.

Laburbilduz, zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taulan erakusten direnak dira:

Zerbitzua	Udala	EEAA	Mankomunitatea	Zerbitzu-kontratuak / lankidetzak / hitzarmenak	Udal sozietatea
Ur-hornikuntza (goi presioan)			X		
Ur-hornikuntza (behe presioan) eta estoldak		X			
Liburutegi publikoa	X				
Las Mejoras futbol zelaia	X				
Hilerria eta ehorzketa zerbitzuak	X				
Emakumeari laguntzeko zentro integrala				X	
Gizarte Etxea	X				
Avenida arte zentroa				X	
Gazteentzako zentroa	X				
Jubilatuak kluba	X				
Eskola jantokia				X	
Udalaren kirol eremua	X				
Musika eskola	X				
Haur eskola				X	

¹ Desegiteko fasean dago.

Kirol anitzeko eskola			X
Tailer-eskola	X		
Autobus geltokia:	X		
Pilotaleku estalia	X		
Lazaretoa		X	
Kale garbiketa			X
Instalazioen garbiketa	X		X
Berdintasunaren bulegoa	X		
Kontsumitzailearentzako argi-bide bulegoa	X		X
Etxebizitzak zaharberritzeko bulegoa		X	
Kiroldegia	X		
Parke publikoak	X		
Bide publikoaren zoladura. Bide kontserbazioa.	X		
Igerileku estalia			X
Udako igerilekua			X
Arrabal igerilekuak	X		
Inbertsioak eta enplegua sustatzeko udal plana	X		
Zezen plaza	X		
Gizarte zerbitzuen prestazioa		X	
Enplegu-sustapena	X		
Gizartearen sustapena eta birgizarteratzea	X	X	
Ingurumenaren babesa	X		
Hondakinen bilketa eta tratamendua		X	
Zahar-etxea		X	
Segurtasuna eta trafikoaren antolaketa	X		
Cintruénigoko tokiko telebista			X
Bidaiarien hiri garraio kolektiboa			X

Toki entitateari 2011ko ekitaldian aplikatzekoa zaion araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileriaren Estatutuari buruzkoa.
- Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko 11/2004 Foru Legea.
- Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, 1/2007 Foru Legeak toki-entitateei buruz ezarritako berezitasunekin.
- Ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legea, defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitaterako moldatzen dituena.
- Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.
- Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.
- Uztailaren 5eko 15/2010 Legea, merkataritza-eragiketen berankortasunaren aurkako neurriei buruzkoa.

- Kontabilitatearen eta aurrekontuen alorrean, Nafarroako toki administraziorako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzko 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira araubide juridikoa ezartzen dutenak.

- Udalaren 2011ko aurrekontuaren betetze-oinarriak eta gainerako barne arauak.

Sozietate publikoa, bere estatutuez gainera, toki-araubidearen araudi orokorraz eta indarrean da-goen merkataritza-araudiaz arautzen da; bereziki, Merkataritza Kodeaz, Kapital Sozietateen legeaz eta Enpresa Txiki eta Ertaintzako Kontabilitate Plan Orokorraz.

Txostenak zazpi atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean, txostenaren helburuak azaltzen dira, eta hirugarrenean, berriz, egindako lanaren norainokoa eta mugak. Laugarrenean, Udalarari eta haren sozietatearen urteko kontuei buruz daukagun iritzia ematen dugu; eta, bosgarrenean, Udalaren egoera-orri garrantzitsuenen laburpena jaso dugu. Seigarren atalean, Udalaren eta haren erakunde autonomoen antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta gomendioak bildu ditugu, arloz arlo. Azkenik, zazpigarrenean, udal sozietatearen funtzionamenduak eta garatutako jarduerak aztertzen da.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik, eskerrak eman nahi dizkiegu Udaleko eta haren erakunde autonomoetako eta sozietate publikoko langileei.

II. HELBURUA

Parlamentuaren eskaria betez eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Cintruenigoko Udalaren 2011ko ekitaldiko kontu orokorraren eta haren sozietatearen urteko kontuen arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

- Ea Cintruenigoko Udalaren eta haren sozietate publikoaren 2011ko ekitaldiko urteko kontuek Udalaren egoeraren irudi zehatza erakusten duten alderdi nabarmen guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2011ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaituriko urteko ekitaldian eginiko eragiketen emaitzei dagokienez ere, aplikatzekoa den informazio finantzarioari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontularitza-printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

- Udalak eta haren menpeko entitateek 2011n izandako jarduerari aplikatzekoa zaion legeriaren betetze-maila.

- Udalaren eta haren menpeko enteen finantza-egoera 2011ko abenduaren 31n.

Txostenari erantsi zaizkio, halaber, egokitzat jotzen diren aholkuak, Udalak eta haren menpeko enteez ezarritako barne-kontrolako sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate-nahiz kudeaketa-sistemak hobetu eta osatze aldera.

III. NORAINOKOA ETA MUGAK

Cintruenigoko Udalaren 2011ko ekitaldiko kontu orokorrak hauek ditu osagai nagusiak:

- Erakundearen beraren eta haren erakunde autonomoen kontua: Aurrekontuaren betetze-mailari buruzko egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaizta, diruzaintza-gerakina, egoera-balantzea eta emaitzen kontua.
- Kontu orokorraren eranskinak: zorraren egoera eta esku-hartze txostenak.

Ez dira Udalaren eta haren erakunde autonomoen kontu bateratuak egiten. Aitortutako eskubideen eta betebeharren aurrekontu-likidazioaren laburpen bat baizik ez da aurkezten, kapituluka, bai eta aurrekontu-magnitute batzuen kalkulua ere. Ez da egiten, ezta ere, etorkizuneko ekitaldien kargura hizartutako gastu eta diru-sareren egoera-orririk.

Sozietatearen urteko kontuak, zeinak ez baitzaizkio gehitzen Udalaren kontu orokorraren espedienteari, honakoek osatzen dituzte: balantzea, emaitzen kontua eta oroitidazki laburtua. Ondare garbian izandako aldaketen aginduzkoa den egoera-orririk ez da egiten.

Udalaren menpeko ente guztien kontabilitate-kudeaketa –zahar-etxearena kenduta– Udalak berak egiten du. Zahar-etxea bertako langileek kudeatzen dute.

Udalaren antolamenduan gako diren bi lanposturen –kontu-hartzailea eta idazkaria– behin-behinekotasun egoerak eragin negatiboa izan du udal kudeaketan.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta araei jarraituz eta azterlan honen helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautapropa edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz egin da lana, lagin teknika edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa aplikatuz, besteren artean.

Zehazki, Udalari eta bere erakunde autonomiadunei dagokienez, berrikusi dira bai beren aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia, bai aplikaturiko oinarrizko prozedurak; eta ebaluatu dira antolaketa, kontabilitate eta barne kontroleko oinarrizko alderdiak.

Udal sozietateari dagokionez, egin dugun lana funtsean izan da aztertzea bere jardueraren eragiketa nagusietan aplikatzekoak zaizkion lege-printzipioak bete dituen, Sektore Publikoko entitateak den aldetik. Halaber, aztertu dugu nolako finantza-egoera duen eta Udalak sozietate horrekiko aplikatu behar dituen kontrol-mekanismoak bete dituen.

Kontuen Ganberak Udalaren 2005eko kontu orokorrari buruzko fiskalizazioa egin zuen, eta hartan azpimarratu zuen barne kontroleko eta kontabilitate-kudeaketako tresnak nabarmen hobetu behar zituela.

Lan honek muga bat izan du, hala ere: ezin izan dugu iritzirik eman Udalak 2011ko ekitaldian aurrekontu-egonkortasunaren printzipioak zenbateraino bete dituen adieraziz, Nafarroako Gobernuak oraindik ere printzipio horiei Foru Komunitate honetako udaletan aplikatzeko araudi berezia eman ez duelako.

IV. 2011KO KONTU OROKORRARI BURUZKO IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Cintruenigoko Udalaren 2011ko kontu orokorra eta haren sozietatearen 2011ko urteko kontuak aztertu ditugu. Kontu horiek prestatzea, bai eta haien edukia ere, Udalaren eta sozietatearen ardura dira, eta laburbilduta jasota daude txosten honen V. atalean eta dagokion eranskinean.

Menpeko ente guztien informazio bateratua formulatu ez denez, bereiz ematen dugu Udalaren eta haren erakunde autonomoen eta merkataritza-sozietatearen kontuei buruzko iritzia.

Gure lanaren emaitza gisa, honako iritzi hau atera dugu:

IV.1. UDALA ETA ERAKUNDE AUTONOMOAK

IV.1.1. Udalaren 2011ko ekitaldiko kontu orokorra

- Ez dago Udalaren eta haren erakunde autonomoen informazio bateraturik, ez bada aurrekontuaren likidazioaren laburpenari buruzko egoera-orri bat.

- Ez da beti betetzen gastu-kredituak mugatzeari buruzko printzipioa.

- Ondasunen inbentarioa 1995ekoa da, oraindik eguneratu gabe dago eta ez ditu ondasun eta eskubide guztiak jasotzen; hartara, ezinezkoa izan da Udalaren egoera-balantzeko ibilgetuari dagokion saldoaren arrazoikotasuna egiaztatzea; saldo hori, 2011ko abenduaren 31n, 35,33 milioi eurokoa zen. Erakunde autonomoek ere ondasunei dagokien inbentarioa falta dute.

- Ezin izan da Udalaren eta Uren Batzarraren arteko zordunen eta hartzekodunen egoera bateratu.

- Zalantza batzuk badaude zahar-etxeak bere jardurekin jarraitzeko ahalmen finantzarioari buruz, jardunean dagoen enpresa baten printzipioari jarraituz. Zalantza hori honakoetatik etorri da: diru-sarrerak berekiak nahikoak ez izatea; Udalarekin berarekin itunik ez edukitzea; mailegu, kreditu eta geroratzeen ondorioz zor handiak izatea; eta diruzaintzako tentsio handiak izatea.

Gure iritziz, salbuespen horiek direla-eta eta azaldutako zalantzazko egoeraren amaiera eza-gutzen denean gerta litezkeen doikuntza-beharren eraginak direla-eta, Udalaren 2011ko ekitaldiari buruzko kontu orokorrak leialki irudikatzen ditu bere gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta bere eragiketen emaitzak, informazio finantzario publikoari buruz aplikatzeko den arauzko esparruari eta, bereziki, bertan bildutako kontabilitate-printzipio eta -irizpideei jarraituz.

IV.1.2. Legezketasuna

- Zahar-etxean, ez da beti dokumentu bidez jasotzen langileak hautatzeko aplikatzen den prozedura.

Aurreko salbuespena kenduta, 2011ko ekitaldian Udalaren eta haren erakunde autonomoen jardura ekonomiko eta finantzarioa, oro har, legezketasun-printzipioari jarraituz egin da.

IV.1.3. Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa 2011ko abenduaren 31n

Kontu orokorrari buruzko salbuespenak, IV.1.1 atalean jasotakoak, kontuan hartuta, ondoren Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2011ko abenduaren 31ko finantza-egoerari buruzko ondorio nagusiak azaltzen ditugu.

Aitortutako betebeharren zenbatekoa 7,72 milioi eurokoa da, eta likidatutako eskubideena, berriaz, 8,24 milioi eurokoa.

Haien izaerari erreparatuta, gastu arruntek gastu guztien ehuneko 89 egiten dute, eta kapital-gastuek, berriz, ehuneko 6. Diru-sarrera arruntak diru-sarrera guztien ehuneko 94 dira; diru-sarrera horien ehuneko 43 jasotako transferentzietatik datoz.

Laburbilduz, taula honetan adierazten da zertarako erabili diren eta nola finantzatu diren Udalaren eta haren erakunde autonomoen gastuen 100 euroko bakoitza:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	Finantza-bidea	Zenbatekoa
Langileak	50	Tributu bidezko diru-sarrerak	56
Bestelako gastu arruntak	39	Transferentziak	43
Kapital-gastuak	6	Ondarearen diru-sarrerak eta beste batzuk	1
Finantza-zama	5		
	100		100

Hona Udalaren 2011rako aurrekontu bateratuaren betetzeari eta betetze horren 2010ekoarekiko alderaketari buruzko datu ekonomikoak (eurotan):

Adierazleak eta magnitudeak	2010(*)	2011	2011/2010 aldea (%)
Aitortutako betebeharrak	8.436.345	7.719.827	-8
Likidaturiko eskubideak	9.404.808	8.240.280	-12
Gastu arruntak (1etik 4ra)	6.708.230	6.963.955	4
Funtzionamendu-gastuak (1,2 eta 4)	6.573.560	6.827.736	4
Kapital-gastuak (6 eta 7)	1.428.805	454.221	-68
Finantza-eragiketengatiko gastuak (8 eta 9)	299.310	301.651	1
Diru-sarrera arruntak (1etik 5era)	7.532.795	7.752.198	3
Tributu bidezko diru-sarrerak (1etik 3ra)	4.514.058	4.646.208	3
Kapitaleko diru-sarrerak (6tik 7ra)	1.402.013	488.082	-65
Diru-laguntzen mendekotasuna (%)	44	43	
Gastu arrunten gaineko tributu bidezko diru-sarrerak, %	67	67	
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	797.773	822.104	3
Aurrekontu-emaiza doitua	923.922	520.453	-44
Aurrezki gordina	959.235	924.462	-4
Finantza-zama (3tik 9ra)	433.979	437.870	1
Aurrezki garbia	523.721	486.592	-7
Zorpetze-maila, %	5,76	5,65	
Zorpetze-muga, %	12,73	11,93	
Zorpetze-ahalmena (%)	6,97	6,28	
Diruzaintza-gerakina, guztira	-579.831	-148.780	74
Zor bizia	5.982.642	5.680.991	-5
Biztanle bakoitzeko zor bizia	773	730	-5
Diru-sarrera arrunten gaineko zor bizia, %	79	73	
Aurrezki gordinaren gaineko zor bizia	6	6	

(*) Egileek prestatua

2011n, Udalak eta haren erakunde autonomoek aurreko ekitaldian baino ehuneko 8 gutxiago gastatu dute (0,72 milioi euro), batez ere inbertsioetan egindako gastuak behera egin duelako – 2010ean baino ia milioi bat txikiagoa izan da–.

Beste alde batetik, diru-sarrerak aurreko ekitaldian baino ehuneko 12 gutxiago izan dira; hau da, 1,16 milioi euro. Beherakada hori, funtsean, inbertsioetarako kapital-transferentziak arras urritu direlako izan da, 2010ean 1,40 milioi euro zirenak, 2011n 0,48 milioi izatera pasa baitira.

Izaera arrunteko gastuak ehuneko lau egin dute gora 2010ekoekin alderatuta, tributu bidezko diru-sarrerak ehuneko hiru egin dute gora.

Aurrekontu saldo ez-finantzarioa 0,82 milioi eurokoa da –2010ean baino ehuneko hiru handiago–, eta horrek adierazten du diru-sarrera ez-finantzarioak nahikoa direla izaera bereko gastuak finantzatzeko.

Aurrekontu-emaiza doitua 0,52 milioi eurora iritsi da; aurreko urtean, berriz, 0,92 milioi eurokoa izan zen.

2011n, bai aurrezki gordinak, bai aurrezki garbiak balio positiboak dauzkate, 0,92 eta 0,49 milioiokoa, hurrenez hurren, eta ehuneko lau eta ehuneko zazpi jaitsi da, hurrenez hurren, aurreko urteko balioekin alderatuta.

Udalaren zorpetze-maila ehuneko 5,65ekoa da, eta ehuneko 11,93ko muga du; horregatik, hain zuzen, oraindik ere badu zorpetze berrietarako ahalmen ekonomikorik.

Diruzaintzako gerakina, guztira, negatiboa da 2011n, -0,15 milioikoa hain zuzen; 2010ean ere saldoa negatiboa izan zen, -58 milioikoa.

Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (hurrengo ekitaldiko gastuak finantzatzeko ahalmenaren adierazlea) ez da modu bateratuan kalkulatu. Hurrengo taulan, magnitude horren balioak erakusten dira Udalari eta bi erakunde autonomoei dagokienez:

(Eurotan)	
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	Zenbatekoa
Udala	36.062
Uren Batzarra	-46.477
Zaharren egoitza	-329.233

Udal kontu-hartzaileak bere txostenetan adierazten duen bezala, ez dira legedia indardunean aurreikusitako neurriak ezarri balio negatibo horiei –balio horiek bereziki garrantzitsuak dira zahar-egoitzaren kasuan– konponbidea emateko.

Epe luzeko zorra 5,68 milioi eurokoa da 2011n; 2010ean, berriz, 5,98 milioi eurokoa izan zen. Zor hori –biztanle bakoitzeko 730 euroraino iristen dena– erakundearen diru-sarrerara arrunten ehuneko 73 da, legeak ezartzen duen ehuneko 75etik hurbil –ehuneko horrek zorpetzeko ahalmena mugatzen zuen 2011n–. Hala eta guztiz ere, Uren Batzarra, banaka harturik, portzentaje horretako balio gisa, bere diru-sarrerara arrunten ehuneko 107 dauka.

Laburbilduz, aurreko urtearen aldean gastuak eta diru-sarrerak gutxitu diren arren –ehuneko zortzi eta 12, hurrenez hurren– gutxitze hori funtsean inbertsioetan eta haien finantziazioan gertatu dira. Izaera arrunteko gastuak eta diru-sarrerak 2011n gora egin dute 2010ekoekin alderatuta. Magnitude garrantzitsuenen jokaerari dagokionez, ikusten da nolabaiteko okertzea gertatu dela 2011ko balioetan, batez ere aurrezkietan, aurrekontu-emaitzan eta diruzaintzako gerakinean. Epe luzeko zorrak ehuneko bost egin du behera.

Bereziki kezkarria da zahar-etxean aurkitu den finantza-egoera, non diruzaintzako tentsio handiak baitaude. Hori dela eta, kanpoko finantziatziora jo behar izan du, bai maileguen bidez, bai diruzaintzako kredituen, aurrerakinen eta geroratzeen bitartez.

Horregatik, Udalaren eta haren erakunde autonomoen bideragarritasuna epe ertainean bermatze aldera, beharrezkoa da Udalak plan ekonomiko-finantzario bat ezartzea, gastu arruntei eusteko eta ohiko baliabideak sortzeko gaitasuna handitzeko aukera emanen diona, jada 2009an hasi zituen aurrezki-jardueren ildotik. Eta hori guztia ahaztu gabe kudeaketa hobetzeko neurriak ezarri behar dituela, besteak beste honako alderdi hauetan: tasak eta prezioak zerbitzuaren kostura egokitzea, inbertsioak lehenestea, diru-laguntzen politika berraztertzea, zenbait zerbitzuren neurria aztertzea eta derrigorrezkoak izan gabe ematen diren zerbitzuek beren burua finantzatzea. Halaber, kudeaketa-neurri egokiak hartu behar dira zahar-etxean aurkitu den finantza-egoera larriari konponbidea emateko.

Bestalde, hirigintza-kudeaketaren ikuspuntutik, planeamendu indarduna ia amaituta dago eta gaur egun beste plan bat idazten ari da.

Fiskalizazioari buruzko iritzian eragin nahi gabe ere, Kontuen Ganbera honek nabarmendu nahi ditu krisi ekonomikoko egungo egoeraren arriskuen ondorioz dagoen egoera, ziurgabetasun horrek Udalaren kontu publikoen gainean dituen eragin finantzarioak eta aurrekontu-egonkortasunari buruzko arauetatik heldu diren aurrekontu-betebeharrak. Testuinguru honetan, aurrekontuen plangintzan eta exekuzioan zorrotz jokatzeko eta funts publikoen erabilera garrantzitsua izateak herritarren beharrekin bat datorren kudeaketa publiko baten oinarritzko baldintza izan behar dute.

IV.2. "CINTRUÉNIGO DE SERVICIOS MUNICIPALES SL" SOZIJETATEA

IV.2.1. 2011KO URTEKO KONTUAK

- Balantzeak eta emaitza-kontuak akatsak eta gorabehera aipagarriak dauzkate beren saldoetan.

- Ondareari dagokionez, ez da aginduzkoa den aldaketen egoera formulatu.
- Zalantza batzuk badaude balio erantsiaren gaineko zergatik eratorritako araudia ez bete-tzeak sozietateari ekarri ahal dizkion ondorio ekonomikoei buruz. Zalantza horrek, 180.000 euro inguruko zenbatekoan kuantifikatu denak, eragin larria izan dezake enpresa bezala funtziona-menduan jarraitzeko duen ahalmenean.

Gure iritziz, deskribatutako salbuespenen eragin oso handia dela-eta eta azaldutako zalantzazko egoeraren amaiera ezagutzen denean gerta litezkeen doikuntza-beharren eraginak direla-eta, Udala-ren 2011ko ekitaldiari buruzko urteko kontuek ez dituzte leialki irudikatzen ez abenduaren 31ko on-dare-egoera, ez bere eragiketen emaitzak, aplikatu daitezkeen finantzari buruzko informazioaren arauzko esparruari eta, bereziki, bertan bildutako kontularitzako printzipio eta irizpideei jarraituz.

IV.2.2. Legezatasuna

- Egindako azterketan, aurkitu dugu behin eta berriz ez dela betetzen langileriaren eta merka-taritzaren arloan eta arlo fiskalean aplikatzekoa den araudia.

Gure iritziz, aurreko salbuespenak sortutako eragin oso aipagarria dela eta, sozietatearen jarduera ekonomiko eta finantzarioa ez da garatu legezatasun printzipioari jarraituz.

Horrenbestez, eta amaierako laburpen gisa, gure iritziz Udalak behar diren neurriak hartu behar ditu ahal bezain laster bere antolamendua eta prozedurak eta lan egiteko metodoak bir-planteatzeko edo orokorrean aztertzeko, funtzionamendu egokia eta arau indardunen betetzea ziurtatze aldera. Hartara, gure iritziz, birplanteamendu hori honako jarduketa-ildo hauetara bide-ratu behar da:

- Sektore publikoaren osaketa sakonki berrantolatzea, bai Udalaren Uren Batzarra, bai merkataritza sozietatea deseginez eta likidatuz, eta udal zerbitzuek eskumen horien prestazioa beren gain hartuz.
- Langileei esleitutako eginkizunak eta egitekoak idatziz finkatzea.
- Langileen arloko politikaren azterketa kritikoa, bereziki sozietateari dagokionez.
- Kontabilitatearen kudeaketa egokia, denborari dagokionez, haren bidez aurrekontu-exekuzioari buruzko jarraipen eta kontrol egokiak egiteko.
- Plan ekonomiko eta finantzario bat egitea, haren bidez ziurtatzeko Udalaren bideragarritasun finantzarioa eta, bereziki, oinarrizko zerbitzu publikoen prestazioa.
- Udalaren eta zahar-etxearen arteko kontratu- eta finantza-harremanak birplanteatzea, horren bi-dez zahar-etxearen bideragarritasun eta iraunkortasun finantzarioa ziurtatzeko.
- Jarduerari buruzko araudia betetzea.

Bestalde, Nafarroako udal maparen berrantolaketaren gainean egun egiten ari den gogoeta dela eta, esan beharra dago Cintruenigokoa adibide erakusgarria dela zerbitzu publikoen presta-ziorako mankomunitateak sortzeko prozesuan gertatzen den nola edo halako desordenari buruz: Udalak lau mankomunitate desberdinetan hartzen du parte beste zenbait udalekin batera.

V. UDALAREN 2011KO KONTU OROKORRAREN LABURPENA

Ondoren, 2011ko kontabilitatearen egoera-orri garrantzitsuenak azaltzen ditugu, Udalak eginak:

V.1. UDALAREN ETA ERAKUNDE AUTONOMOEN 2011KO BETETZE BATERATUAREN EGOERA-ORRI LABURTUA**DIRU-SARRERAK**

		(Eurotan)
Kapitulua	Izendapena	Aitortutako eskubideak
1	Zuzeneko zergak	1.764.335
2	Zeharkako zergak	144.672
3	Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrerak batzuk	2.737.201
4	Transferentzia arruntak	3.023.125
5	Ondare bidezko diru-sarrerak eta herri-aprobetxamenduak	82.865
6	Inbertsio errealak besterentzea	2.880
7	Kapital transferentziak eta bestelako kapital dirusarrerak	485.202
9	Finantza-pasiboak	0
Guztira		8.240.280

GASTUAK

		(Eurotan)
Kapitulua	Izendapena	Aitortutako betebeharrak
1	Langile-gastuak	3.850.179
2	Gastuak, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	2.028.056
3	Finantza-gastuak	136.219
4	Transferentzia arruntak	949.501
6	Inbertsio errealak	353.541
7	Kapital-transferentziak	100.680
9	Finantza-pasiboak	301.651
Guztira		7.719.827

V.2. UDALAREN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA 2011N

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

(Eurotan)

Gastuen kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Behin betiko aurreikuspenak	Aitortutako betebehargarbiak	Betetako portzentajea	Ordainketak	Ordainketen ehunekoa	Ordaintzeke dagoena
1 Langile-gastuak	2.645.470	2.645.470	2.546.300	96	2.517.241	99	29.059
2 Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak	1.476.011	1.479.011	1.363.263	92	1.044.965	77	318.298
3 Finantza-gastuak	93.646	93.646	103.442	110	103.442	100	-
4 Transferentzia arruntak	1.027.560	1.030.560	1.050.856	102	825.418	79	225.439
6 Inbertsio errealak	570.390	570.390	285.060	50	169.512	59	115.548
7 Kapital-transferentziak	128.020	128.020	100.680	79	52.804	52	47.876
9 Finantza-pasiboak	206.205	206.205	200.821	97	200.821	-	-
	6.147.302	6.153.302	5.650.422	92	4.914.203	87	736.220

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

(Eurotan)

Diru-sarreraren atala	Hasierako aurreikuspena	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubide garbiak	Betetako portzentajea	Kobrantzak	Kobrantzen ehunekoa	Kobratzeke dagoena
1 Zuzeneko zergak	1.743.250	1.743.250	1.764.335	101	1.622.179	92	142.156
2 Zeharkako zergak	76.000	76.000	144.672	190	79.532	55	65.140
3 Tasak eta bestelako diru-sarrerak	481.000	481.000	621.703	129	558.621	90	63.082
4 Transferentzia arruntak	3.140.889	3.140.889	3.021.122	96	2.935.388	97	85.735
5 Ondare bidezko diru-sarrerak	72.617	72.617	73.848	102	40.461	55	33.387
6 Inbertsio errealak besterentzea	102.880	102.880	2.880	3	2.880	100	-
7 Kapital-transferentziak	542.911	542.911	485.202	89	375.929	77	109.272
9 Finantza-pasiboak	-	-	-	-	-	-	-
	6.159.547	6.159.547	6.113.762	99	5.614.990	92	498.772

V.3. UDALAREN 2011KO AURREKONTU-EMAITZA

(Eurotan)

Kontzeptua	2011ko ekitaldia	2010eko ekitaldia
Aitortutako eskubide garbiak	6.113.763	7.253.968
Aitortutako betebeharrak	5.650.423	6.254.771
Aurrekontu-emaiza	463.340	999.167
Doitzeak		
Finantziazioaren desbideratzeak	-190.868	42.510
Aurrekontu-emaiza doitua	272.472	1.041.677

V.4. UDALAREN DIRUZAINZTA-GERAKINA 2011KO ABENDUAREN 31N

(Eurotan)

Kontzeptua	2011ko ekitaldia	2010eko ekitaldia
+ Kobratzeke dauden eskubideak	2.556.968	1.823.616
(+) Gastuen Sarrerak: Aurtengo ekitaldia	497.988	526.108
(+) Gastuen Sarrerak: Itxitako ekitaldiak	853.841	807.107
+ Kobratzeko dauden itzulketak	623	511
- Aplikatzeke dauden diru-sarrerak	22.380	42.478
+ Aurrekontuz kanpoko zordunak	1.226.895	532.367
- Bilketa zaileko eskubideak	762.309	702.547
- Ordaintzeke dauden betebeharrak	-2.310.911	1.726.793
+ Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	736.220	705.597
+ Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	86.482	32.322
- Ordaintzeke dauden diru-sarreraren itzulketak	448	26
+ Aplikatzeke dauden gastuak	600	80.721
- Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	1.488.361	1.069.568
+ Diruzaintzako funts likidoak	700.975	395.556
+ Finantzaketa-desbideraketa metatu negatiboak	42.207	42.207
Diruzaintza-gerakina, guztira	226.930	-167.960
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa duten gastuak direla-eta	0	0
Diruzaintza-gerakina, atxikitako gastuak direla-eta	0	0
Diruzaintza-gerakina, baliabide atxikiak direla-eta	190.868	0
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	36.062	-167.960

V.5. UDALEKO EGOERA-BALANTZEA 2011KO ABENDUAREN 31N

AKTIBOA

(Eurotan)

Deskribapena	2011	2010
A Ibilgetua	35.332.794	35.050.614
Ibilgetu materiala	19.699.835	19.508.535
Ibilgetu ez-materiala	661.819	661.819
Erabilera orokorrera bideratutako azpiegitura eta ondasunak	12.056.907	11.966.027
Herri-ondasunak	2.907.321	2.907.321
Finantza-ibilgetua	6.912	6.912
C Zirkulatzaila	3.309.148	2.352.708
7 Izakinak	0	0
8 Zordunak	2.606.453	1.875.345
9 Finantza-kontuak	702.696	477.363
Aktiboa, guztira	38.641.942	37.403.322

PASIBOA

Deskribapena	2011	2010
A Funts berekiak	31.451.918	30.496.376
1 Ondarea eta erresebak	19.291.503	18.382.744
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	778.780	891.403
3 Kapitaleko diru-laguntzak	11.381.634	11.222.228
C Epe luzeko hartzekodunak	4.754.817	4.955.638
4 Prestamenak, maileguak eta fidantzak eta jasotako gordailuak	4.754.817	4.955.638
D Epe laburreko hartzekodunak	2.435.207	1.951.308
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	2.412.827	1.908.830
6 Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	22.380	42.478
Pasiboa, guztira	38.641.942	37.403.322

V.6. UDALAREN 2011KO EMAITZA EKONOMIKOA

Ekitaldiko emaitza arruntak

(Eurotan)

ZORRA			HARTZEKOA		
Deskribapena	2011	2010	Deskribapena	2011	2010
3 Hasierako izakinak	0	0	3 Bukaerako erosketak	0	0
39 Izakinen balio-galeraren ondoriozko zuzkidura	0	0	3 9 Izakinen balio-galeraren ondoriozko zuzkidura	0	0
60 Erosketak	0	0	7 0 Salmentak	264.796	250.854
61 Langile-gastuak	2.525.954	2.509.611	7 Ondasunaren eta enpresaren errenta	396.573	330.372
62 Finantza-gastuak	103.442	104.812	7 2 Produkzioari eta inportazioari loturiko tributua	1.436.033	1.361.914
63 Zergak	10.054	0	7 3 Errentaren gaineko zerga arruntak	398.667	397.717
64 Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	1.345.858	1.266.000			
65 Gizarte-prestazioak	0	0	7 5 Ustiapenerako dirulaguntzak	0	0
66 Ustiapenerako dirulaguntzak	0	0	7 6 Transferentzia arruntak	3.019.522	2.924.311
67 Transferentzia arruntak	1.078.553	754.984	7 7 Kapitalaren gaineko zergak	91.607	93.703
68 Kapital-transferentziak	100.681	16.843	7 8 Bestelako diru-sarrerak	343.495	196.629
69 Amortizazio eta hornidurarako zuzkidura, ekitaldikoa	0	0	7 9 Beren helbururako aplikaturiko hornikuntzak	0	0
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	786.151	900.250	8 0 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0	0
Guztira	5.950.693	5.552.500	Guztira	5.950.693	5.555.500

Ekitaldiko emaitzak

(Eurotan)

ZORRA			HARTZEKOA		
Deskribapena	2011	2010	Deskribapena	2011	2010
80 Ekitaldiko emaitza arruntak	0	0	80 Ekitaldiko emaitza arruntak	786.151	900.250
82 Ohiz kanpoko emaitzak	0	0	82 Ohiz kanpoko emaitzak	0	15.259
83 Balore-karteraren emaitzak	0	0	83 Balore-karteraren emaitzak	0	0
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	7.371	25.106	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	0	0
89 Etekin garbia guztira	778.780	890.403	89 Galera garbia, guztira	0	0
Guztira	786.151	915.509	Guztira	786.151	915.509

VI. UDALARI ETA HAREN MENPEKO ERAKUNDE AUTONOMOEI BURUZKO IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondotik, kudeaketaren arlo aipagarrien arabera sailkaturik, Ganberaren iritziz Udalak eta bere erakunde autonomoek bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne kontrola hobetzeko hartu beharko lituzkeen neurriei buruzko iruzkin eta gomendio nagusiak emanen ditugu.

VI.1. UDALARI BURUZKO ALDERDI OROKORRAK

2011ko ekitaldirako aurrekontua atzerapen handiz onetsi zen 2011ko azaroan; onespen horretara arte, 2010eko aurrekontu luzatuarekin jardun zuen Udalak, eta 2010eko hori ere aurreko ekitalditik luzatutako aurrekontua zen. Nabarmendu behar dugu 2011ko ekainean, udal hauteskundeetatik atera zen udalbatzak ez zuela ez ekitaldirako aurrekonturik –gai garrantzitsua da hori, aurreko ekitaldietako diruzaintza-negatiboak egotearekin batera–, ez aurreko ekitaldiko konturik. Egoera horrek, izan ere, kudeaketa egokia zaildu du.

Udalaren 2011ko kontu orokorra 2012ko urrian onetsi zen; 2010ekoa, berriz, 2012ko maiaztuan. 2008ko eta 2009ko kontuak onetsi gabe daude, Osoko Bilkurak atzera bota dituelako.

Ez dira Udalaren eta erakunde autonomoen egoera-orri bateratu guztiak egiten, nahiz eta legedia indardunak hori ezarri.

Udalaren urteko kontuak ez zaizkio Udalaren kontu orokorrari gehitzen.

Ez dira beti gastuetarako kredituen behar diren aldaketak egiten, eta horrek eragiten du zenbait kapitulu eta atxikitze-poltsatan aitortutako betebeharrak erabilgarri dauden kredituak baino handiagoak izatea.

2011ko kontabilitate-kudeaketa atzerapen nabarmenez izapidetu da, eta horrek zaildu egin du aurrekontu-betetzearen eta kontabilitate orokorraren saldoen jarraipen egokia egitea. Bestalde, kontabilitate-dokumentuak, oro har, sinatu gabe daude.

Kontabilitate orokorraren egoera-orriak –bai Udalarenak, bai erakunde autonomoenak– aplikazio informatikotik lortzen dira zuzenean. Saldo horiek aztertze, berrikusteko eta, kasua bada, txukuntzeko prozesu bat egiten ari da.

Udalaren kontu-hartzaitzak eta ukitutako arloek ez dute beti edukitzen eragin ekonomikoa duten jardueri buruzko alde aurreko informaziorik.

2011ko abenduaren 31n, Udalaren epe luzeko zorra 4,73 eurokoa da, eta honako amortizazio-taula dauka (eurotan):

Ekitaldia	Amortizazioa	Ehunekoa	Ehuneko metatua
2012	210.326	4	4
2013	224.571	5	9
2014	219.677	5	14
2015	216.015	4	18
2016-2020	1.075.580	23	41
2021-2025	1.111.361	23	64
2026-2030	1.078.033	23	87
2031-2035	597.258	13	100
Guztira	4.732.821	100	

Hau da, amortizazio kuotak nahiko modu uniformeetan banatzen dira aztertutako aldiaren zehar.

2011ko uztailean, 650.000 euroko diruzaintza-kreditu bat kitatu zen; 2011ko abuztuan, kopuru bereko beste kreditu bat hitzartu zen. Haren mugaeguna 2012ko abuztuan zen.

Udalaren ondasunen inbentarioa 1995ean egin zen eta ez da gaurkotu.

Ez dago zentralizatuta auzi eta erreklamazioetatik heldutako gorabeheren jarraipena.

Ez dago ekitaldian adjudikatutako kontratuen erregistro gaurkoturik.

Dokumentazioaren kontrolean, kudeaketan eta arxivatzean akatsak aurkitu dira.

Hona gure gomendioak:

- *Udalaren aurrekontu orokor bakarra onestea, indarrean dagoen legedian ezarrita dauden epeei eta edukiari jarraituz.*

- *Udalaren kontu orokorra indarrean dagoen legediak ezartzen duen epearen barruan onartzea.*

- *Egiaztatzea aurrekontu-krediturik badagoela eta, kasua bada, aurrekontu-aldaketak egiteko behar diren figurak aplikatzea.*

- *Kontabilitate orokorraren kontuetako saldoak eta aurrekontuz kanpoko kontzeptuak aztertzen eta, kasua bada, erregularizatzen jarraitzea.*

- *Udalaren kontu-hartzailetzari eta ukitutako arloei aurrez adierazi behar zaie edo/eta aurrez eza-gutu behar dute eragin ekonomiko-finantzarioak dauzkan jarduera oro.*

- *Gastu bakoitza behar bezala erregistratzea, bere izaera ekonomikoari eta bere sortzape-nari dagokion ekitaldiari erreparatuz.*

- *Behar den justifikazioa eranstea, beha bezalako adostasuna adierazia duena, kontabilitate dokumentu bakoitzari.*

- *Udalaren ondasun eta eskubide guztien inbentario balioztatua gaurkotzea eta onestea.*

- *Inbentarioko altak eta bajak kontrolatzeko eta jarraitzeko sistema bat ezartzea, haren etengabe gaurkotzea eta kontabilitateko ibilgetuarekin duen lotura bermatu eta bideratzeko.*

- *Kontratuen eta gorabeheren kudeaketa egokiak eskatzen du arlo horiei buruzko erregistro zentralizatu bat egitea, eta erregistro hori beti gaurkotuta edukitzea.*

VI.2. UDALEKO LANGILE-GASTUAK

Udalaren langileriaren arloko gastua 2,55 milioi eurokoa da. Kopuru horrek Udalaren gastu guztien ehuneko 45 egiten du.

Kapitulu honek ehuneko 96ko betetze-maila dauka. Atxikitze-poltsei erreparatuta, haietako hiru-tan kreditua gainditu da: gobernu-organoen lansariak –ehuneko 103–, entitatearen administrazio orokorra –ehuneko 102– eta tokiko polizia –ehuneko 103–. Ez dira egin egoera hori saihesteko beharko liratekeen aurrekontu-aldaketak.

2010eko ekitaldiarekin alderatuta, langile-gastuak ehuneko bi egin du gora, ondoko taulan erakusten den bezala (eurotan):

Langile-gastuak	2010ean aitortutako betebeharrak	2011n aitortutako betebeharrak	Aldaketaren ehunekoa, 2011/2010
Goi-karguak	52.529	54.330	3
Funtzionarioak	806.733	824.636	2
Lan kontratudun finkoak	175.781	175.763	0
Aldi baterako lan-kontratudunak	673.027	683.478	2
Bestelako langileak	3.000	3.000	0
Gizarte-prestazioak	792.988	805.093	2
Langileak, guztira	2.504.058	2.546.300	2

Nabarmentzekoa da aldi baterako langileek zenbateko garrantzia duten.

VI.2.1. Udal langileak

2011ko plantilla organikoa urte horretako abuztuko osoko bilkura berezi batean onetsi zen hasiera batez. Onespen hori Nafarroako Administrazio Auzitegiak deuseztatu zuen, zeren eta gai hori osoko bilkura berezi horretarako gai zerrendatik kanpo sartu baitzen. 2011ko abenduan, berri ere onetsi zen plantilla hori, nahiz eta ez zen NAO n argitaratu, aginduzkoa bada ere.

2012ko urtarrilean, 2012ko plantilla onetsi zen, eta horixe da langileen 2011ko abenduaren 31ko egoera hobekien islatzen duena. Hartara, hura aztertuta, honakoa azpimarratzen dugu:

36 lanpostu hartzen ditu guztira; horietatik 30 beteta daude, bost hutsik daude eta bat zerbitzu berezietako egoeran dago, izendapen askeko lanpostu batean ari delako (Udaltzaingoko burua). Hona xehetasunak

	Beteak	Lanpostu hutsak	Konsumitzailearen arreta Bereziak	Guztira
Funtzionarioak	24	4	1	29
Lan-egunak	5	1	0	6
Izendapen askekoak	1	0	0	1
Guztira	30	5	1	36

Plantilla horretatik, 13 lanpostu –hau da, guztien ehuneko 36– Udaltzaingoari dagozkie.

2011n, ez da egon enpleguaren eskaintza publikoko deialdirik.

Idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuak hutsik daude, eta administrazio-kontratazioaren bidez betetzen dira. Nafarroako Gobernuaren 2012-2013 urteetarako deialdian sartu dira, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko. Lanpostu horiek honako egoera izan dute 2005etik:

- Idazkaria

2009ra arte lanpostuaren titularrak betetzen zuen. Urte hartan jubilatzen zen.

2009ko ekainetik 2013ko otsailera pertsona batek betetzen du administrazio-kontratazio baten bitartez.

Data horretatik, beste pertsona bat kontratatu da, administrazio-kontratu bidez.

- Kontu-hartzailea

2008ko azarora arte, administrazio-kontratu baten bitartez beteta zegoen.

2009ko urtarriletik 2009ko ekainera, beste pertsona batek bete zuen administrazio-kontratu bitartez.

2009ko uztailetik 2010ko urrira, hutsik egon zen, eta idazkariak bete zituen eginkizun horiek.

2010eko azarotik 2012ko abuztura aurreko pertsonak bete zuen berriz ere.

2012ko irailetik 2012ko abendura, hutsik egon zen, aurreko pertsona aldi baterako eszedentzia eskatu zuelako. 2013ko urtarrilean hasi zen berriz lanean.

Ikus daitekeen bezala, toki entitate batean gako diren bi lanpostuen egoerak ez du laguntzen Udalaren kudeaketa egokian, eta eragin negatiboa dauka kontabilitatearen kudeaketan, kudeaketa administratiboan eta legearen eta ekonomiaren arloko aholkularitzan.

2011ko abenduaren 31ko nominaren arabera, guztira 85 pertsonak egiten dute lan Udalarentzat. Honako udal arloei atxikita daude:

Arloak	2010eko pertsona kopurua	2011ko pertsona kopurua
Administrazioa eta zerbitzu orokorrak	15	16
Segurtasuna eta udaltzaingoa	13	13
Enpleguko eta ingurumeneko zerbitzuak	2	2
Musika eskola	15	15
Tailer-eskola	26	24
Obrak eta hirigintza	18	13
Kirola	4	2
Guztira	93	85

85 enplegatuetatik, 34 langile plantillako langile gisa daude sailkatuta eta 51 pertsona aldi baterako lan-kontratudunak dira.

Aurreko langileak hurrengo taulan azaldutakoaren arabera banatzen dira:

Aldi baterako lan-kontratudunak	Kopurua
Administraziokoak	4
Udal Musika Eskola	15
Tailer-eskola	24
Obretarako brigadaren errefortzua	5
Berdintasuna	1
Eskola-jantokiko garbitzaileak	2
Aldi baterako langileak, guztira	51

Udaleko langileen enplegu-baldintzak, oro har, zenbait akordio eta hitzarmenen arabera arautzen dira. Hartara:

- Langile funtzionarioak: beren lan-baldintzak 2008tik 2011rako arautzeko akordio baten arabera.
- Langile finkoak eta lan-kontratu administratiboa dutenak: 2004tik 2007ra doan aldirako izenpetutako akordio baten arabera. Akordio hori gaur egun ere aplikatzen da.
- Gainerako langileei kasuko sektoreko hitzarmenak aplikatzen zaizkie.

Gastu horiek aztertuta ondorioztatzen da, oro har, ordaindutako ordainsariak egindako lanerako ezarritakoak direla, egindako atxikipeak egokiak direla eta langile-gastuak behar bezala kontabilizatuta daudela. Hala eta guztiz ere, ondoko alderdiak nabarmendu nahi ditugu:

- Lan kontratu batzuk ondoz ondo eta behin eta berriz egiten dira, eta, horrenbestez, aztertu beharko litzateke ea lanpostu horiek egiturazkoak diren eta, horrenbestez, plantilla organikoaren barruan jaso beharko liratekeen.
- Nominaren aplikazioa ez dago zuzenean lotuta kontabilitatearekin. Horrek, batzuetan, akatsak eta egozte okerrak eragiten ditu.
- Ez dago jasota nominaren fiskalizazioari buruzko prozedura sistematikorik.
- Nominaren laburpena ez da aurkezten lansari finkoak eta lansari aldakorrak bereizita, eta horrek zaildu egiten du azken lansari mota horren gaineko kontrola.
- Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko zorrak agertzen dituzten kontabilitate-saldoetan alde batzuk badaude, ez oso handiak, aplikazio informatikotik bertatik, kalkulu-akatsetatik edo bateratu gabeko saldoak arrastatzen dituzten etorritakoak.

Gure gomendioak:

- *Gastuetarako kredituen izaera mugatua errespetatzea eta, hala behar izanez gero, behar diren aurrekontu-aldaketak egitea.*
- *Plantilla organikoan jasota dauden lanpostuen kopuruaren eta Udalean egiaz lan egiten duten pertsonen arteko desfase handia arrazoizkoa den aztertzea.*
- *Nominen aplikazioa kontabilitaterako eta aurrekontuetarako aplikazioarekin lotzea.*
- *Nomina fiskalizatzeko prozedura bat diseinatu eta aplikatzea.*

VI.2.2. Zinegotzien lansariak

Zinegotzien 2011ko lansariak uztailaren 2009ko udal akordioan araututa daude. Akordio hori 2011ko azaroan berretsi zen. Akordio horien arabera, honakoak dira esleituta dauden lansariak:

- Alkatetzaren lansaria, arduraldi partzial bati dagokiona, urteko 20.813,14 euro gordinekoa da. Kopuru horretan, Gizarte Segurantzarentzako ekarpenak daude. Ez egungo alkateak, ez aurreko alkateak ez dituzte 2011n jaso alkatetzarako aurreikusita zeuden ordainsariak; izan ere, udal organoetara bertaratzetik heldutakoak hartzen dituzte soilik.
- Udal organoetara bertaratzeko ordainsariak:
 - 66,92 euro Osoko Bilkurara joateagatik.
 - 20,00 euro Tokiko Gobernu Batzarrerara joateagatik.
 - 20,00 euro Informazio Batzordera joateagatik.
- Udalbatzako kideek eskubidea izanen dute beren karguan jarduteak ekarritako gastu efektiboengatik kalte-ordainak jasotzeko, betiere haiek behar bezala baimenduta eta justifikatuta baitaude, urtero Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen ordainsarien arlorako ezarzen diren terminoen eta zenbatekoen arabera.

Hona udalbatzako kideen ordainsarien guztizkoak ekarri duen aurrekontu-gastuaren xehetasunak, euron emanak:

Goi-karguak	Gastua, 2010	Gastua, 2011
Udalbatzako kideen ordainsariak	23.708	25.723
Udal taldeen ordainsariak	27.925	27.696
Udalbatzako kideen aseguruak	896	911
Guztira	52.529	54.330

Egindako lanetik, honako hau nabarmenduko dugu:

a) Udaltzatuko kideen ordainsariak zuzen kalkulaturik daude, udal organoetan duten presentziari erantzuten diote eta PFEZaren kasuko atxikipena egiten zaie.

b) Udal taldeen ordainsarietatik gehienak heldu dira Udalean Nafarroako Gobernutik alkatearen eta zinegotzien lantsarietarako jasotako diru-laguntzaren eta haiek egiazki bertaratzeengatik jasotako diruaren arteko diferentzietatik. Badirudi horixe ondorioztatzen dela Osoko Bilkurak 2010eko abenduaren egindako bilkuratik, bertan honakoa adierazi bitzen: *“Ikusita Udalaren zinegotzien lantsarien kontzeptuan 2010ean izan diren gastuak ez direla iristen Gobernuak kontzeptu horrengatik eman ditzakeen diru-laguntzen gehienekora, erabaki da udal taldeei aparteko ordainsari bat banatzea. Banaketa horren zenbatekoa diru-laguntzatik ordaintzeko dagoena izanen da, eta udal taldeetako zinegotzi-kopuruaren proportzioan banatuko da”*.

Nafarroako Gobernuak Nafarroako udalei ordaintzen dizkien ordainsariak, hautetsi bakoitzaren arduraldiarengatik egindako ordaintzen bidezkoa, Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 19/2008 Foru Legeko 15. artikuluko a) atalean aurreikusita dago. Izan ere, bertan gehieneko ekarpen bat ezartzen da, zinegotzi kopuruaren arabera. Ekarpena bere xedeari lotuta egonen da eta, horrenbestez, bakar-bakarrik erabiliko da alkateari nahiz zinegotzietatik ordaintzeko, kargudunek beren karguan denbora osoan edo partzialean aritzeagatik edo bilkurasariak, kalte-ordainak nahiz kargu publikoan aritzearen ondorio zuzenak diren bestelako pagamenduak egite aldera. Udalek urtero aurreko ekitaldian egindako gastuak justifikatu beharko dituzte.

Baldin eta hautetsiei ekitaldian ordaindutako kopuruak guztira iristen ez badira artikuluko honetan udal bakoitzarentzat ezarritako gehieneko kopurura, kontzeptu honengatik egiten den hurrengo ordaintzetan kenduko da kopuruaren arteko alde hori.

2011ko gastuak direla-eta Nafarroako Gobernuari igorritako justifikazioa eskatu dugu, eta ikusi dugu udal idazkariaren ziurtagiri bat badagoela, non hauxe esaten baita: *“Udal honek bere zinegotzietatik, kargu aritzearen ondoriozko lanengatik, 53.419,67 ordaindu zizkien 2011ko ekitaldian. Zenbateko horiek osoz erabili dira aipaturako 15. artikuluko a) letran zerrendatzen diren gastuak finantzatzeko”*.

Gure ustez, udal taldeentzako ordainsarien kontzeptuan egindako gastuak ez dira sartzen Nafarroako Gobernuak diruz lagundu ditzakeen gastuen kontzeptuaren barruan.

Gomendatzen dugu Nafarroako Gobernutik jasotako diru-laguntza bere xederako erabiltzea eta hartatik sobran dauden zenbatekoak erregularizatzea.

VI.3. UDALAREN ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN EGINDAKO GASTUA

Aurrekontuko bigarren kapituluko gastuak 1,36 milioi euro egiten dute guztira, eta guztizko gastuaren ehuneko 24 dira. Betetze-maila ehuneko 92koa da. Zerbitzuarengatik kalte-ordainen artikulua ehuneko 113 betetzen da. Ez dago iguera horretarako gaikuntzarik ematen duen aurrekontu-aldaketarik.

2010arekin alderatuta, ehuneko 7 egin du gora, honako xehetasunena arabera (eurotan):

Ondasun arruntak eta zerbitzuak	2010ean aitortutako betebeharrak	2011n aitortutako betebeharrak	Aldaketaren ehuneko, 2011/2010
Errentamenduak	16.719	24.712	48
Konponketak, mantentze-lana eta kontserbazioa	184.948	171.547	-7
Materiala, hornidurak eta bestelakoak	1.067.334	1.159.654	9
Zerbitzua dela-eta emaniko kalte-ordainak	5.552	7.350	32
2. kapitulua, guztira	1.274.553	1.363.263	7

Udalak erosketak egiteko daukan sistema “Gastuetarako protokoloa” izenburua daraman dokumentuaren barruan dago araututa. Dokumentu hori Udaleko kontu-hartzaileak egin zuen 2007an, eta erosketak egiteko bete beharreko baldintzak eta egin beharreko urratsak zehazten ditu. Egiaztatu dugu dokumentu hori, oro har, bete egiten dela, salbu eta bi alderditan: ez dago beti gastuaren aurretiko proposamenik, eta aztertutako fakturretarako adostasuna gastuaren erantzuleak ematen du.

Ikusten dugu aurrekontuaren jarraipenerako aplikazio informatikoak ez dituela gastu-eragiketak blokeatzen kontusailean edo/eta atxitze-poltsan behar adina kreditu ez dagoenean. Ohar bat baizik ez da egiten, baina arintasunaren aitzakian, kontabilitatea eta aurrekontua izapidetzen jarraitzeko aukera ematen da.

Bestalde, aurrekontuaren betetze-oinarriek aukera ematen dute gastuen 2. kapituluari honakoak egotzeko: *“Udalak zuzenean antolatzen dituen jarduerak egiten laguntzen duten organismo edo entitateentzako diru-laguntzak; halakoetan joko da kasuko jarduerak kostu handiagoa izan dutela”*.

Kontratazio espediente hauek aztertu ditugu:

(Eurotan)

Deskribapena	Kontratu mota	Adjudikatzeko prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenak	Esleipenaren zenbatekoa, BEZik gabe	2011n betetakoa
Jaietarako orkestak	Laguntza	Irekia/ eskaintzarik onena	40.000	5	40.000	40.000
Kale-garbiketa, eskobatzeko-makinarekin	Laguntza	Europar Batasunean publizitaterik gabeko prozedura negoziatua/prezioa	54.000	1 ⁽¹⁾	49.248	8.208 ⁽²⁾

(1) Hiru enpresari egin zitzaizen gonbita, baina bik ez zuten eskaintzarik aurkeztu.

(2) Betetzen ari da.

Espediente horiei buruz eta kapitulu honetako gastuen ehuneko 30 egiten duten lagin baten gainean egindako azterketari buruz, honako alderdiak adierazi behar ditugu:

- Tokiko telebistaren gastuak. 2011n 17.974 euroko gastua eragin du guztira. Espedientean ez dago jasota kasuko kontratua formalizatu denik. 2012an, egoera hori erregularizatzeari ekin zaio, kasuko hautapen-prozesuaren bitartez.
- Haurtzaindegiko jantokia. 2011n, 45.833 euroko kostua izan du. 2005ean sinatutako kontratu batean du oinarria. Une hauetan, legedia indardunak finkatutako gehieneko epea gainditzen du.
- Agentzia exekutiboaren ordutegiak. 2011n, 31.342 euroko gastua dauka, eta 2000n sinatutako kontratu batean bermatuta dago. Horrenbestez, zabal gainditzen du araudian ezarritako gehieneko epea.
- Bide-garbiketa, eskobatzeko-makinarekin. Kontratazio-espedientea aztertuta, ondorioztatzen dugu ezen, orokorrean, araudiaren arabera izapidetu zela. Halere, honako dokumentazioa falta da espedientean:
 - a) Gastuaren onarpena, kontu-hartzaitzaren fiskalizatzea eta kreditu-erreserba.
 - b) Enpresaburuaren nortasun juridikoa kreditatzea.
 - c) Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzako betebeharretan egunean egotea.
- Epekako ordainketak. Ikusten dugu faktura jasotzeko data ez dagoela beti jasota eta, zenbait kasutan, araudian adierazitako ordainketa epeak gainditzen direla. Inguruabar hori kontabilitate-kudeaketan izandako atzerapenen bidez justifikatzen da. 2011n, fakturatarako erregistro bat ezarri da.

Hona gure gomendioak:

- *Udalaren erosketak erregulatzen duen prozedura aztertu eta, behar izanez gero, aldatzea.*
- *Udalak ematen dituen diru-laguntzak dagokien kapitulu ekonomikoari egotzi behar zaizkio; alegia, 4.ari edo 7.ari. Horrenbestez, betetze-oinarriak aldatu egin behar dira, alderdi horri dagokionez.*
- *Faktura guztiek gastuaren arduradunaren adostasuna eduki behar dute, izapidetze administratiboa baino lehen.*
- *Atxikitze-poltsetan behar adina kreditu ez dagoen kasuetan, behar den aurrekontu-aldaketa izapidetzea.*

- *Behar diren kontratazio espedienteak izapidetzea indarraldi-epea gainditu dituzten kontratuetan.*
- *Kontratazio-espedienteek arau indardunek exijitzen duten dokumentazio guztia eduki behar dute.*
- *Fakturak ordaintzea legediak ezarritako epeetan.*

VI.4. UDALAREN TRANSFERENTZIENGATIKO GASTUAK

Transferentzia arruntek eta kapital-transferentziek 1,05 eta 0,1 milioiko gastua egin dute, hurrenez hurren. Transferentzia arruntek ehuneko 102ko betetze-maila dute eta kapital-transferentziek, berriz, ehuneko 79koa. Ekitaldiko gastuen guztizkoan, ehuneko 20 egiten dute biek batera.

Tresna izaerako enteak eta Udala sartuta dagoen mankomunitateak finantzatzeko direnek 0,59 milioi egiten dute, honako xehetasunen arabera (eurotan):

Tresna izaerako enteei eta mankomunitateei egindako ekarpenak	2011n aitortutako betebeharrak
Uren Udal Batzarra	146.966
Cintruénigo de Servicios Municipales SL	319.500
Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea	93.606
Erriberako Hondakin Solidoen Mankomunitatea	9.670
Ebroko Kirol Mankomunitatea	24.000
Guztira	593.742

2010eko ekitaldiarekin alderatuta, transferentzien bidezko gastuek honakoa erakusten dute (eurotan):

Honakoei eginiko transferentzien ondoriozko gastuak	2010ean aitortutako betebeharrak	2011n aitortutako betebeharrak	Ehunekoa 2011/2010 aldea
Erakunde autonomoak	0	146.966	-
Udal sozietatea	229.000	319.500	40
Toki entitateak	85.899	127.276	48
Enpresa pribatuak	84.762	122.295	44
Familiak eta irabazi asmorik gabeko erakundeak	343.525	334.819	-3
Kanpoan	11.798	0	-100
4. kapitulua, guztira	754.984	1.050.856	39
Enpresa pribatuak	16.843	74.083	340
Familiak eta irabazi asmorik gabeko erakundeak	0	26.597	-
7. kapitulua, guztira	16.843	100.680	498
Transferentzien ondoriozko gastuak, guztira	771.827	1.151.536	49

Hau da, gastu horiek ehuneko 49 egin dute gora 2010eko gastuekin alderatuta.

Emandako diru-laguntzen lagin bat aztertu da. Transferentzia arrunten ehuneko 37 eta kapital-transferentzien ehuneko 100 egiten dute. Lortutako emaitzak horrela laburbiltzen dira:

VI.4.1. Transferentzia arrunten lagina

Honako hauek aztertu dira:

(Eurotan)

Transferentzia arruntetarako gastuak	Zenbatekoa
Igerilekuetako urteko gastuetarako ekarpena	68.000
Igerilekuen defizita ordaintzeko ekarpena, 2007-2008	40.000
Hautzaindegirako diru-laguntza	192.194
Kultur enteentzako diru-laguntza	44.016
Cintruenigoko musika bandarentzako diru-laguntza	44.751
Guztira	388.961

Egindako lanetik, honako hau nabarmenduko dugu:

- Udako eta neguko igerilekuak. Bi kontusail egozten dira:

a) Urteko gastuetarako ekarpena. Ordaindutako zenbatekoa ez da aldatu 2009tik. Instalazioak kudeatzeko kontratu berri batean oinarritzen da –kontratu hori 2008an adjudikatu zen eta lau urteko indarraldia dauka; indarraldi hori gehienez 30 urtera luza daiteke–. Kontratuan ezartzen da, besteak beste, Udalak parte hartuko duela adjudikazio-hartzailearen emaitzen kontuak ematen dituen galeretan, gehienez ere 72.405 euroekin. Ez dago jasota adjudikazio-hartzaileak aurkeztutako kontuak aztertzeko prozedura sistematikorik ba ote dagoen.

b) 2007-2008 urteetako defizita ordaintzeko ekarpena. Udalak behar zuena baino aurrekontu txikia goa ezarri zuen –25.000 euro– enpresari 2008a baino lehenagoko kontratutik heldutako funtzionamendu-gastuak finantzatzeko –kontratu hori kontratu indardunaren kontzesio-hartzaile berari adjudikatu zitzaion–. Enpresaren idazkiei jarraituz, zenbateko hori ez zen behar adinakoa, eta instalazioen ustiake-tan, berriz, defizita sortzen zen. 2011ko maiatzean, txosten bat aurkeztu zuen, non 2007ko eta 2008ko defizita zenbatesten baitzuen: 112.380 euroan finkatzen zuen. Udalak erabaki zuen kopuru hori hiru urtetan ordaintzea; lehenengo ordainketa 40.000 eurokoa izanen zen, eta 2011ko ekitaldian eginen zen.

- Hautzaindegirako diru-laguntza. Diru-laguntza hori 2002an adjudikatutako kontratu batean du oinarria. Kontratuak gehienez ere hamar urteko indarraldia du. Txosten hau idazteko unean, beste kontratazio espediente baterako arau-orriak idazten ari dira. Kontratua ezarritako denbora-mugaz gainerik luzatu da.

Bai baldintza-orriek, bai kontratu indardunak beren prezioetan jantoki-gastuak jasotzen dituzte. Alabaina, gastu horiek beste enpresa bati esleituta daude, eta hari ordaintzen zaio kasuan kasuko gastua.

- Kultur enteentzako diru-laguntza. Urtero egiten diren deialdietan araututa dago. Irizpide argi eta zehatzak aplikatzen dira diruz lagundutako jarduera zuzen banatu eta kontrolatzeko.
- Cintruenigoko musika bandarentzako diru-laguntza. 2008tik 2011ra doan aldirako izenpetutako lankidetzak-hitzarmen batean dago araututa. Nabarmendu behar dugu ezen, hitzarmen horretan berariak jasota ez badago ere, bandako zuzendariari osagarri bat ordaintzen diola musika eskolak zuzendaritza-eginkizun horrengatik. Musika-eskolan irakasle gisa ageri da.

VI.4.2. Kapital-transferentzien lagina:

Kontabilitatean erregistratutako guztiak aztertu dira. Honakoak, zehazki:

(Eurotan)	
Kapital-transferentziengatikoko gastuak	Zenbatekoa
Valle Ulzama eraikuntza-enpresarentzako kalte-ordaina	26.791
Inbertsioak eta enplegua sustatzeko plan berezia	7.890
Tokiko enplegu plana	39.402
Erribera kaleko argiteriaren kobrantzaren itzulketa	26.597
Guztira	100.680

• Valle de Ulzama eraikuntza-enpresarentzako kalte-ordaina. Ez da, berez, diru-laguntza bat, baizik eta 2010eko epai batetik heldutako kalte-ordain bat. Izan ere, epai hark Udala zigortu zuen aipatutako eraikuntza-enpresari eragindako kalte-galerak ordaintzeko, "*Avenida zinemarako lehiaketan parte-hartzeak eragindako gastuengatik eta jaso ez zituen etekinengatik*". Kalte-ordaina 74.770 eurokoa da, gehi legezko interesak, 8.098 eurokoak. 2010eko urtean zeuden finantzaketa-zailtasunak tarteko, printzipalaren eta dagozkion berandutza-interesen zatikako ordainketen bidez ordaintzekoa da, lau urtez –2011tik aurrera–.

• Inbertsioak eta enplegua sustatzeko plan berezia. 7.890 euroko gastua biltzen du; 2010ean baino ehuneko 53 gutxiago, hain zuzen. Gastu hori bi onuradunen artean banatzen da, granja batean inbertsio bat egiteko eta zaharberritze obra batzuetarako. Ordainketa horiek 2011n gerazi zituen udal kontu-hartzailetzak, eta horretarako bi arrazoi eman zituen: kontusailean ez zegoela behar adina diru eta laguntzetarako oinarrietan eskatzen zen dokumentazioa falta zela. Azkenean, 2012ko ekitaldian ordaindu ziren.

Diru-laguntza horiek finantza laguntzen toki erakundeen plana arautzen duen ordenantzaren indarrez eman ziren. Ordenantza horrek laguntza horiek jasotzeko baldintzak eta Udalak betetze egokia bermatzeko exijitzen dituen bermeak eta abalak ezartzen ditu.

Esan beharra daukagu ez ordenantzaz, ez enpresei kontzesioa emateko akordioetan, ez dela informaziorik ematen laguntza horiek daukaten "minimis"² izaerari buruz, Europako legediak exijitzen duen bezala.

• Tokiko enplegu plana. Gizarte Segurantzarentzako kuoten ehuneko 50eko hobariengatikoko diru-laguntzak jasotzen ditu. Diru-laguntza horiek 27 hartzekoduni ordaindu zaizkie eta 318 euro eta 3.577 euro bitartekoak dira. Haien ematea "Cintruenigoko Udalerako langile gehiago kontratazeko diru-laguntzen deialdian" araututa dago. Deialdi hori 2011n argitaratu zen.

Haren xedea da arautzea diru-laguntza bat eman dakiela Cintruenigo herriko langabezia gutxitzen laguntzen duten enpresa guztiei.

2011ko aurrekontuari egotzitako laguntza guztiak ordaindu gabe daude, udal kontu-hartzailetzak aurkeztutako eragozpen-txostenaren ondorioz. Txosten hori oinarritzen da bai krediturik ez izatean bai onuradunek aurkeztutako ziurtagiriak ikuskatu ez izatean; aurreko arazoetatik zati handi bat etorri zen eskabideko eranskinean aurkeztu beharreko dokumentazio gisa agertzen

² Hiru urteko epe batean emandako laguntzak, 200.000 euroko gehieneko muga gainditzen ez dutenak. Kasu horietarako, ez da beharrezkoa Europar Batasunari haien berri ematea, baina bai informatu behar zaio onuradunari haien minimis izaerari buruz.

zena eta NAOn argitaratutako oinarrietan agertzen zena desberdinak izatetik. Azkenean, 2012ko martxoan ordaindu ziren.

Laguntza horiek direla eta, aurrez “minimis” izaerari buruz aipatu dugun gauza bera esan behar dugu.

- Erribera kaleko argiteriaren kobrantzaren itzulketa. 21 hartzekodun aitortu ziren Nafarroako Auzitegi Nagusiaren 2010eko uztailaren 29ko ebazpenaren indarrez. Ebazpen horrek, izan ere, zuzenbidean erabat deusez deklaratu zuen kale horretako amaierako zatiko argiteria publikoko obregatikoko kontribuzio berezien likidazio-espeditentea. Ez dauka diru-laguntza baten izaera ekonomikoa, baizik eta ordainketa batena.

Gure gomendioak:

- *Gastuak beren izaera ekonomikoaren arabera eta sortzapenari dagokion ekitaldiaren arabera egozte.*
- *Kontratu berrietarako hautapen prozesuak arautu behar dituzten baldintzak behar den denboraz prestatzea, zerbitzuak artatu gabe utz ez daitezen edo amaitutako kontratuak beren denbora-mugatik aurrera luza ez daitezen.*
- *Kontzesioetarako oinarri erregulatzailleak eta kontzesio-erabakiek argitasunez eta gardentasunez jaso behar dute diru-laguntzaren onuradunak zer dokumentazio aurkeztu behar duen.*
- *Bai oinarri erregulatzailleetan, bai kontzesio-erabakietan, laguntzen “minimis” izaerari buruz informatzea, ezaugarri hori duten diru-laguntza guztietan.*

VI.5. UDALAREN INBERTSIOENGATIKO GASTUAK

Udalak inbertsioengatik egin dituen gastuak guztira 285.060 eurokoak izan dira. Kopuru horrek 2011ko gastu guztiaren ehuneko 5 baizik ez du egiten; betetze-maila txikia dute, ehuneko 50ekoa, funtsean lau kontusailetan ezer ere ez delako bete; kontusail horien artean, nabarmentzekoa da igerileku estalirako inbertsioei dagokiena, zeinak 190.868 euroko aurreikuspenak baitzeuzkan.

2010eko ekitaldiarekin alderatuta, ehuneko 80 egin du behera, honako xehetasunena arabera (eurotan):

Inbertsioak	2010ean aitortutako betebeharrak	2011n aitortutako betebeharrak	Ehunekoa 2011/2010 aldea
Erabilera publikorako azpiegiturak	68.348	90.880	33
Instalazio teknikoak	773.952	19.203	-98
Eraikinak eta bestelako eraikuntzak	430.387	77.585	-82
Makineria eta tresnak	10.440	0	-100
Garraio materiala	21.974	23.157	5
Bulegoko ekipo-altzariak eta eta altzariak eta tresnak	18.119	1.953	-89
Ekipo eta programa informatikoak	14.082	3.212	-77
Bestelako ibilgetu materiala	9.332	0	-100
Udal plan orokorra idaztea	53.631	0	-100
Lurrak eta ondasun naturalak	0	69.070	-
6. kapitulua, guztira	1.400.265	285.060	-80

Kapituluko gastuaren ehuneko 77 egiten duten honako inbertsioak aztertu dira:

(Eurotan)

Inbertsioak	Zenbatekoa
Ligués etxeko obrak	18.533
Kirol-instalazioen erreforma	50.758
Industrialdeko lursailen itzulketa	69.070
Trenbide korridorea	81.522
Guztira	219.883

Aztertutako laginaren eta egindako azterketaren ondorioz, adierazi behar dugu ezen, orokorrean, egiaztatu baita kontratuei buruzko legedia bete dela kontratazio-espeditteen izapidetzean; halaber, egiaztatu dugu kontabilizatutako gastuak arrazoizkoak direla. Hala ere, honakoa esan behar dugu:

- Betetze-oinarriek ezartzen dute kapitulu honetako kontusail bakoitza, berez, atxikitze-poltsa bat dela; hori dela eta, beharrezkoa da ezen, gastua aurreikusitakoa baino handiagoa bada, behar den aurrekontu-aldaketa egin dadila. Praktikan, halako aldaketarik ez da izapidetzen.

- Kontratazio-mugez beheragokoak diren gastuetan, ez da beti ageri aginduzkoa den kreditu-erreserbaren izapidetzea.

- Ligués etxeko obrak. Jauregi-eraikin baten erreforma da, zeina 2001ean hasi baitzen. Tailer-eskolak egiten du erreforma hori. Lanak gerarazita daude tailer eskola finantzatzen zuen diru-laguntza eten delako.

- Kirol-instalazioen erreforma. Kirol-instalazioak berritu eta mantentzeko zenbait lani dagokio. Nafarroako Gobernuaren 50.000 euroko diru-laguntza baten bitartez finantzatzen dira.

- Industrialdeko lursailen itzulketa. Lursailen itzulketa hori Udalaren Osoko Bilkurak onetsi zituen 2010eko maiatzean. Haien salmenta onetsi zuen erabakian aurreikusita zegoen bezala, aukera zegoen haiek Udalari itzultzeko, ordainketa erosle berri bat egotearen baldintzaren pean jarrita. Aurrekoa gorabehera, urte berean banku-txekearen bitartez erosi ziren, baina ez da inongo eroslerik ageri, ez dago inolako kontabilitate- edo dokumentu-euskarririk, eta gastua ez zaio 2010eko aurrekontuari egotzi, zeren eta kontusailik ez baitzegoen. 2010eko urrian, kontuhartzailea lanera itzuli zenean, ekitaldiko kontuak ixtearen kariatara, txosten bat egin zuen, non esaten baitu espediente osoa berregin egin behar izan duela, kalkulu aritmetikoen zuzentasuna berraztertu behar izan duela eta gastua 2011ko aurrekontuari egotzi behar izan diola.

- Trenbide-korridoreko pasealekua. Jarduketa horretarako 80.000 euroko gastua zegoen aurreikusita. 2011ko irailean, hitzarmen bat sinatu zen Nafarroako Gobernuarekin. Horren bidez, azken horrek zenbateko hori egiten duen diru-laguntza bat eman zion obra hori finantzatzeko. Jarduketa hori 2011ko abenduaren 15a baino lehen amaitu behar zen. Honako kontratazio-espeditteak biltzen ditu:

(Eurotan)

Deskribapena	Kontratu mota	Adjudikatzeko prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenak	Esleipenaren zenbatekoa, BEZik gabe	201n betetako
Obraren proiektua idaztea eta zuzendaritza	Laguntza	Kreditu-erreserba eta faktura			4.464	4.464
Trenbide-korridorea egokitzea Aldez aurreko jarduketak	Obra	Presakoa. Publizitaterik gabe negoziatua, eskaintza onenarentzat	41.555	1 (*)	41.555	41.485
Plaken hornikuntza	Hornidura	Publizitaterik gabe negoziatua, eskaintza onenarentzat	33.981	3	33.981	34.068

(*) 20 enpresa gonbidatu ziren eta bik baizik ez zuten eskaintzarik aurkeztu; bi horietako batek, epez kanpo.

Obren kontratua aztertuta, gorabehera batzuk ikusi ditugu. Hona haiei buruzko oharra:

1. Adjudikazio irizpide gisa kaudimen tekniko eta profesionala aplikatzen da, nahiz eta hori okerra den.

2. Adjudikazio-irizpideen barruan, eskaintza ekonomikoa 100 puntutik bat bakarra da. Puntuazioaren gainerakoa honakoan artean banatzen da: proiektua dela-eta eskaintako hobekuntzak – 70 puntu–, makineria eta erabiltzekoak diren bitarteko materialak –15 puntu– eta kaudimen tekniko eta profesionala –14 puntu–.

3. Eskariak aurkezteko epea soilik zazpi egunekoa izan zen. Epe hori justifikatu zen espedientearen izapidetzeak zeukan presarengatik.

4. Espedientearen ez dira jaso adjudikazio-hartzailearen honako dokumentuak:

- a) Lizitazio prozeduratik enpresa baztertzeko arrazoirik ez dagoela dioen adierazpena.
- b) Kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionalaren justifikazioa.
- c) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarenak beteta edukitzeari buruzko ziurtagiria.

Korridorean egindako jarduketa horri buruzko espedienteetatik ondorioztatzen da obren zati bat 2010ean hasi zuela Udalaren obretarako brigadak berak, nahiz eta ADIFen baimena, aginduzkoa dena, ez zen 2010eko azarora arte eman. Gero, ADIFi exekuzio-epea zabaltzeko eskatu zitzaion eta horretarako baimena lortu zen. Lanak 2011ko martxoaren 29an hasiko zirela jakinarazi zitzaion, eta 8 hilabeteko exekuzio-epea eman zitzaion.

Paraleloki, beste aukera batzuei buruzko azterketa egiteko lana aldatu zen, eta 2011n baieztatu zen Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza bat egonen zela jarduketa horretarako. Diru-laguntza hori eskatzeko eta lortzeko eskatutako dokumentazio guztia prestatu zen eta obrak, egiazki, 2011ko azaroaren 15ean hasi ziren. Obrak jasotzeko buruzko aktaren arabera, 2011ko abenduaren 20an amaitu ziren obrak.

Gure gomendioak:

- *Egin beharreko obraren zailtasun teknikoaren arabeko adjudikazio-irizpideak aplikatzea.*
- *Kontratazio-espeditentek arau indardunek exijitzen duten dokumentazio guztia eduki behar dute.*
- *Faktura guztiek gastuaren arduradunaren adostasuna eduki behar dute, izapidetze administratiboa baino lehen.*
- *Ordainketak egitea legediak ezarritako epeetan.*

VI.6. UDALAREN AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

Udalaren aitortutako eskubideak 7,25 milioi eurokoak dira. Ehuneko 99ko betetze-maila dute.

Diru-sarreraren ehuneko 92 eragiketa arruntei dagozkie, eta ehuneko 8 kapital-eragiketei. 2011n, ez zen diru-sarrerarik jaso zorpetze berria hartzeagatik.

2010eko ekitaldiarekin alderatuta, aitortutako eskubideak ehuneko 16 murriztu dira, eta aldaketa hau izan dute, atalez atal (eurotan):

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako esku- bide garbiak, 2010	Aitortutako esku- bide garbiak, 2011	Aldaketaren ehu- nekoa, 2011/2010
1 Zuzeneko zergak	1.734.677	1.764.335	2
2 Zeharkako zergak	93.102	144.672	55
3 Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	588.997	621.703	6
4 Transferentzia arruntak	2.935.219	3.021.122	3
5 Ondare diru-sarrerak	74.500	73.848	-1
Diru-sarrera arruntak (1etik 5era)	5.426.496	5.625.680	4
6. Inbertsio errealen besterentzea	155.787	2.880	-98
7 Kapital-transferentziak	1.201.685	485.202	-60
Kapitaleko diru-sarrerak (6tik 7ra)	1.357.472	488.082	-64
9 Finantza-pasiboak	470.000	0	-
Finantza eragiketen diru-sarrerak (9)	470.000	0	-
Diru-sarrerak, guztira	7.253.968	6.113.762	-16

Aurreko konparazioan, bereziki nabarmentzekoa da diru-sarrera arruntek ehuneko lau egin dutela gora eta kapital-transferentzien bidezko diru-sarrerek, berriz, ehuneko 60 egin dutela behera.

Ondorengo taulan udal-zerga bakoitzak aitortutako eskubideen bilakaera erakusten da:

Zerga	2010	2011	Aldaketaren ehuneko, 2011/2010
Landa-lurraren gaineko kontribuzioa	62.804	62.260	-1
Hirilurraren gaineko kontribuzioa	1.002.616	1.032.760	3
Ibilgailuak	397.717	398.667	-
Lursailen balioa handitzea	68.148	74.308	9
JEZa	203.392	196.341	-3
EIOZa	93.102	144.672	55
Guztira	1.827.779	1.909.007	4

Udalaren zergen bidezko diru-sarrerek ehuneko lau egin dute gora 2010arekin alderatuta. Igoera hori, funtsean, honako figurei dagokie: hiri-lurren kontribuzioa, lursailen balio gehikuntza eta EIOZa. Halaber, JEZaren gutxitzea nabarmendu behar dugu.

Udalak aplikatzen dituen tasak Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legeak agintzen dituen tasa behe/ertainen artean daude, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

Tributua	Udala	2/95 Foru Legea
Landalur kontribuzioa	0,80	0,10 - 0,50
Hiri-lur kontribuzioa	0,2288	
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,40	1 - 1,40
Lurren balioaren igoera		
Gaurkotzearen koefizientea	2,17tik 3,40ra	2tik 3,8ra
Karga-tasa	8,56	8-20
Eraikuntza, instalazioa eta obrak	3,21	2-5

Diru-sarreraren aurrekontuko kontusailen lagin baten azterketa egin ondoren, oro har, egoki izapidetu eta kontabilizatu direla egiaztatu dugu. Alabaina, honakoak azpimarratu nahi ditugu:

- Udalak, balorazio-ponentziaren azterketa egiteko zain dagoela, hiri-kontribuziorako eta landa-kontribuziorako tipoak bereizten jarraitzen du, eta ez da egokitu 2006tik indarrean dagoen Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 139. artikuluan ezarritako tipo bakarrari.

- EIOZa ordainarazten da zergadunak aurkeztutako hasierako aurrekontuaren arabera eta, orokorrean, ez da egiten egiaz egindako gastuaren arabera behin betiko likidaziorik.

- Ez dago tasa eta prezio publikoekin ordaintzen diren kostuei buruzko azterketarik.

- Transferentzien barruan jasotzen da, gure ustez oker jaso ere, 206.834 euroko diru-sarrera bat. Kopuru hori kirol instalazio batzuen eraikuntza dela-eta eskatutako kalte-galerengatik erreklamazio batetik heldutako kalte-ordain bati dagokio; izan ere, eraikuntza-prozesuan okerrak eta definizio ezak izan ziren. Udaleko kontu-hartzailearen eta ganbera honen iritziaren aurka, diru-sarrera hori inbertsioen finantziarioari atxikitako diru-sarrera gisa mantentzen da.

- Errentamendu kontratu batzuk ez dira KPlaren arabera gaurkotzen –nahiz eta hori berariaz aurreikusita egon–, eta horietako bitan –geltokia eta jubilatuen etxea– ez da inolako kobrantzarik ageri. Azken egoera hori justifikatzen da esanez errentariak beren kontura obrak egin dituztela udal instalazio horietan, Udalaren kasuko baimenik gabe. Gero, errentariak eskatu dute gastu horiek errentamenduaren kuoten bidez konpentsatzeko. Udaleko kontu-hartzaileak ezezkoa eman dio asmo horri.

Hona gure gomendioak:

- *EIOZaren ordainarazpenean behin betiko likidazioa egitea.*

- *Tasen eta prezio publikoen zenbatespena kasuko kostu-azterlanetan oinarritzea.*
- *Errentamendu-kontratuak egoki kudeatzea, honakoak eginez: haien zenbatekoak KPlaren arabera gaurkotu, ordaintzeko dauden kopuruak kobratzeko aurreikusita dauden prozedurak erabili eta kontratuan, kasua bada, errentariak eginiko inbertsioen arazoa erregulatzea.*

VI.7. HIRIGINTZA

Hirigintza arloaren kudeaketa udal arkitektoaren eskumena da. Arkitektoa, izan ere, udal obren arduraduna izateko eginkizuna edukitzeaz gainera, obretako brigadaren burua da. Lanaldi partziala duen administrazio laguntzaile baten laguntza dauka horretarako.

Hirigintza-prozeduren eskuliburu bat badago, non arlo horretako jarduketak arautzen baitira.

Udalaren planeamendu indarduna 1998ko abenduan onetsitako udal planean araututa dago. Plan hori, funtsean, 10 plan partzialen eta plan berezi baten bidez garatu da, eta guztira 35 aldaketa egin zaizkio.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak (LFOTU) hiru urteko epea ezarri zuen, 2006ko apirilera bitarte, indarrean diren planeamenduak homologatzeko eta egokitzeko.

Formalki ez da homologazio hori egin, nahiz eta 2010aren amaieran Lurraldearen Erabilera-rako Estrategia eta Eredua (LEEE) onetsi zen, udal plan berria egiteko alde aurreko urrats gisa. Hasierako onespina emateko zain dago udal plan berri hori. Fase horretan, obra-lizentzien kontzesioak eten egin ziren, baina etendura hori aldi baterakoa izan zen.

Aipatutako LEEEn esaten da garapenerako aurreikusita zeuden lursail gehienak agortuta daudela, bai hiri-lurzoruan, bai lurzoru urbanizagarrian.

Halaber, esaten da azken urteetako etxebizitza-hazkundera funtsean familia bakarreko etxebizitzaren tipologian oinarritu dela, eta horrek berarekin ekarri duela lurzoruaren kontsumoa, kostuak eta urbanizazioaren barreiatzea handiagoak izatea, bai eta ekipamendu eta zerbitzuetarako hiri-lurzorua lortzea praktikan ezinezkoa izatea ere. Bestalde, Barne Erreformatarako Plan Bereziak hiria erreformatzeko lehentasunezko zazpi jarduketa jasotzen zituen, baina horietako bakarra ere ez da garatu eta herrigune historikoan ez dira aurreikusita zeuden ekipamenduak egin. Lurzoru industrialari dagokionez, zabal gainditu dira planeko aurreikuspenak, eta haren hedadura ia bikoiztu egin da.

Azken batez, aurreko iruzkinak agerian jartzen dute planeamendu hori agortuta dagoela eta hirigintza plangintzarako beste tresna baten beharra dagoela.

Udalak ez du prestatu eta ez du, ezta ere, kudeatzen aginduzkoa den Lurzoruaren Udal Ondarearen inbentario eta erregistroa, ez eta hirigintza-hitzarmenen erregistroa ere.

2011n, funtsean, ondoko jarduketak hauek egin dira:

1. Planaren aldaketa bat, Udalak berak egin. Haren izapidetzea legedian ezarritakoaren arabera egin da.

2. Hirigintza-hitzarmen bat, ehuneko 10aren nahitaezko lagapenetik heldu diren aprobetxamenduak dirutan kobratzeko. Hitzarmen horri buruz hauxe esan behar dugu:

- Sektoreko jabearen ekimenez hasten da.
- Ekimen pribatuko jarduketa batzuen barruan sartzen da. Ekimen horiek sektoreko jabe bakarrak bultzatu ditu; zehazki, 2008an onetsitako garapen plan partzial bat, gero birzatatze proiektu baten bitartez exekutatua –2009an onetsi zen– eta urbanizazio-proiektu baten bitartez izapidetua –2011n onetsi zen–.
- Aurreko garapenekin bat, jabeak honakoen lagapena egin behar zion Udalari: aprobetxamenduen ehuneko 10 –656,70 m²-ko lursail baten parekoa– eta bide- eta dotazio-azpiegiturak egiteko behar den lurzoru.

- Hitzarmenaren izapidetzea –2008an hasi zen– araudiaren arabera egin zen, honako salbu-espeneekin: ez dago jasota aprobetxamendu horien aparteko diru-bihurtzea justifikatzen duen interes publikoari edo gizarte-onurari buruzko oroitidazkirik, eta ez dira erantsi aginduzkoak diren ez txosten juridikoak, ez kontu-hartzailetzaren txostena.

- Udalari egin beharreko lagapenaren aprobetxamendua diru bihurtzeari buruzko balorazioa dela eta, bi tasazio daude, bata partikularrak aurkeztua eta bestea udal arkitektoak egina. Hona xehetasunak, eurotan emanak:

Tasazioak	m ² bakoitzeko kostua	Diru-bihurtzearen guztizkoa (aprobetxamenduen % 10)
Partikularra	71,15	46.724
Udal arkitektoa	88,50	58.118
Aldea	-17,35	-11.394

Elkarrizketa batzuk izan ondoren, Ogasun Batzordeak partikularrari eskaini zion behin betiko balorazioa aurreko bi balorazioen batez besteko aritmetikoa izatea, hau da, 79,825 euro/m², eta partikularrak hura onartu zuen, baldin eta sistema orokor batzuk egitea berari zuzenean adjudikatzen bazitzaion.

- Espedientean negoziazio eta txosten batzuk agertzen dira, eta azkenean, onetsitako hitzarmenean, 2009ko abuztuko NAO n argitaratutakoan, diru-bihurtzea kuantifikatzen da, modu ulertezin batez, alegia, jabeak proposatutako zenbatekoaren arabera, udal arkitektoak egindako balorazioa albo batera utzita. Horrenbestez, Udalaren aldeko diru-bihurtzeak 11.394 euroko balioa galdu zuen. Behin betiko testu horrek legez ezarritakoez beste betebeharririk ez du biltzen. Espedientean, gainera, ez da jasotzen partikularrak bestelako kontraprestaziorik eman behar izatea.

- Ondoren, LEEEaren informazio publikoko aldiaren, partikularrak alegazio bat aurkeztu zuen hari buruz, eta haren bidez bilatzen zuen planeamendu berriak jada aurreko planeamenduaren babesean onetsitako sektoreko antolamendua eta kudeaketa errespetatzeko. Udalak, txosten teknikoak jaso ondoren, errefusatu egin zuen, planeamenduaren aurreikuspen berriekin bat ez etortzeagatik, eta bi aldeen artean berriz negoziatzeko epe bat zabaldu zen.

- Negoziazio horien ondorioz, 2011ko apirilean, beste hitzarmen bat argitaratu zen, non, funtsean, honakoa hitzartzen baita:

a) Udalak, bere kostura, udal plan indardunaren aldaketa bat eginen du, non jabeak bermatuko zaizkion egun daudenak edo aprobetxamendu handiagoak eta aurreko urbanizazio-proiektuan ezarritako zama berak edo txikiagoak, bai eta kudeaketa-esparru bat ere, non jabeak ez duen galduko jabe bakarren edo gehiengodunaren izaera. Aldaketa hori urtebeteko epean onetsi beharko da.

b) Plan partzialaren exekuzioa etetea erabakitzen da, harik eta aldaketa hori onetsi arte.

c) Aldaketa horretarako, alde aurretik partikularrak onespina eman behar du, eta ezarritako urtebeteko epean onesten ez bada, sektorearen exekuzioari ekinen zaio plan partzialean jasotako terminoetan.

- Txosten hau idazteko garaian –2013ko martxoan–, ez dago jasota plan indardunaren aipatu aldaketa egin denik, eta ez dakigu zein egoeratan dagoen hirigintza-jarduketa horren garapena. Bestalde, Udalaren jabetzapekoak diren lursailen katastro-orrian, ez dago jasota aprobetxamenduaren ehuneko 10aren lagapena lursailetan gauzatu denik, eta udal erregistroetan ez da ageri, ezta ere, lagapena diruz kobratu denik; orri horretan bai agertzen da, ordea, gune berdeetarako lurzoru dotazionalaren lagapena.

Azken batean, jarduketa honek erakusten du nola, partikularren arteko hitzarmen baten bidez, egungo hirigintza-planeamendua alda daitekeen eta udalerrriaren etorkizuneko planeamendua baldintza daitekeen, jokabide horretatik eratorritako interes publikoa edo gizarte-onura behar bezala justifikatu gabe.

Hona gure gomendioak:

- *Udalerriaren egungo errealitatearen arabera hirigintza-planeamendu berria izateko iza-pideak amaitzea.*
- *Lurzoruaren Udal Ondarearen erregistro eta inbentarioa egin eta kudeatzea.*
- *Hirigintza-hitzarmenen aginduzko erregistroa egitea.*
- *Hirigintza-hitzarmenek eta gainerako hirigintza-jarduketek arauaren bermea eduki behar dute eta interes orokorrei erantzun behar diete.*
- *Aprobetxamenduen ehuneko 10aren lagapenak soilik Udaleko txosten teknikoan babesa eduki behar du.*

VI.8. SAN FRANCISCO DE ASÍS ZAHAR-ETXEA

“Patronato San Francisco de Asís” izeneko erakunde autonomoak Cintruenigoko zahar-etxea kudeatzea du xede. Patronatuak 1993an onetsitako estatutu batzuetan araututa dago.

Zahar-etxea zuzenean kudeatzen da eta Nafarroako Gobernuarekin itunduta dago, 2005aren amaieran sinatutako kontratu baten bitartez. Kontratu hori urtero luzatu izan da gaur arte. Guztira baliodunen-tzako eta lagunduentzako 83 toki dauzka; 2011n, guztira 39 langile finkok egiten dute lan bertan.

Egindako lana aztertuta, ondoren zehazten ditugun alderdiak nabarmendu behar ditugu.

VI.8.1. Alderdi orokorrak

- Patronatua 1993ko estatutu batzuen arabera araututa dago, baina estatutu horiek ez datoz bat zahar-etxearen egungo funtzionamenduarekin eta egiturarekin.
- Kudeaketaren ardura guztia zahar-etxeko zuzendariaren postuan biltzen da. Postu horrek kontabilitate-eginkizunak, langileak kudeatzekoak eta diru-zaintzakoak hartzen ditu bere gain, zuzeneko arretaren arduradun diren bi laguntzailerekin.
- Estatutuetan aurreikusita badago ere, ez da prozedurarik diseinatu Udalaren barne kontrol-eko unitateek zahar-etxearen kontrol sistema bat ezartzeko. Udaleko kontu-hartzaileak, halere, aurrekontu-betetzearen amaierako egoera-orriak aztertzen ditu.
- Kudeaketaren euskarri informatikoa aurrekontu-betetzearen jarraipenerako kontabilitate-modulua baizik ez da; ez dira aplikatzen, bereziki, ez langileak kudeatzeko modulua, ez eta diru-sarreraren modulua ere.
- Zahar-etxearen finantziarioa, funtsean, Nafarroako Gobernuak eta libre dauden tokiak betetzen dituzten erabiltzaileek ordaintzen dituzten kuotetatik heldu da. Udalak, normalean, diruzaintzako beharrak asetzeko aurrerakinak eman besterik ez du egiten.
- Ondasunen eta zerbitzuen kontratazioaren arloan, ikusi dugu 2011n erosketa batzuek eragin duten gastu-bolumenak bere diru-kopuruaren arabera kontratazio-prozedura batez izapidetzea eskatzen zuela. Bestalde, fakturak ez daude beti adostuta; espedienteek ez dituzte beti behar diren albaranak, eta, oro har, kutzaren irizpidea erabiltzen da kontabilitate-erregistroan. Hala eta guztiz ere, ikusi dugu ahalegin bat egiten dela erosketa-prezio eta baldintza onenak bilatzeko.
- Ez dago ondasunen inbentariarik.

VI.8.2. 2011ko aurrekontu-betetzea

A taulan, 2011ko aurrekontuaren likidazioa eta aurrekontuaren adierazle nagusiak erakusten ditugu.

A. taula. San Francisco de Asís Zahar-etxearen 2011ko aurrekontu-likidazioa**DIRU-SARRERAK 2011**

Kapitulua	Izendapena	Hasierako kredituak	Aldak.	Behin betiko kredituak	Aitortutako eskubideak	Betetako portzentajea	Kobrantzak
3	Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrerara batzuk	1.598.990	0	1.598.990	1.541.059	96	1.534.237
4	Transferentzia arruntak	0	0	0	2.003	-	2.003
5	Ondare bidezko diru-sarrerak eta herri-aprobetxamenduak.	0	0	0	1	-	1
Guztira		1.598.990	0	1.598.990	1.543.063	97	1.536.241

2011ko GASTUAK

Kapitulua	Izendapena	Hasierako kredituak	Aldak.	Behin betiko kredituak	Aitortutako betebeharrak	Betetako portzentajea	Ordaindutakoa
1	Langile-gastuak	1.282.172	0	1.282.172	1.262.123	98	1.145.181
2	Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	269.573	0	269.573	273.335	101	268.084
3	Finantza-gastuak	5.022	0	5.022	15.385	306	15.385
6	Inbertsio errealak	0	0	0	13.481	-	13.480
9	Finantza-pasiboak	42.223	0	42.223	42.373	100	42.373
Guztira		1.598.990	0	1.598.990	1.606.697	101	1.484.503

Magnitudeak	Zenbatekoa
Aurrekontu-emaiza	-63.634
Aurrezki garbia	- 50.154
Diruzaintzako gerakina, guztira	-329.233
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-329.233
Zor bizia-mailegua	168.974
Zor biziaren ehunekoa, diru-sarrera arrunten gainekoa	11
Diruzaintzako kredituak	150.000

Horri buruz ondokoa adierazi beharra dugu:

- Ez da errespetatzen gastuetarako kredituaren muga-printzipioa eta ez dira behar diren aurrekontu-aldaketak egiten; hori dela eta, gastuaren kapitulu batzuetan, aitortutako betebeharrak behin betiko kreditua gaintitzen dute. Alderdi hori bereziki nabarmentzekoa da finantza-gastuetan.

- Gastuetan, ehuneko 79 langile-gastuei dagozkie. Diru-sarreretan, ia ehuneko 100 bat datoz egoitzako erabiltzaileek ordaintzen dituzten kuotekin, dela zuzenean -407.884 euro-, dela Nafarroako Gobernuarekiko itunaren bitartez -407.884 euro-.

- Aurrekontu-emaiza negatiboa da, -63.634 eurokoa; hau da, diru-sarreretan kopuru hori falta izan da gastuak finantzatzeko.

- Finantza-egoera zaila ikusten da, eta horrek berarekin dakar gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina negatiboa izatea. Ez dira legedi indardunean aurreikusitako neurriak hartu magnitude negatibo hori zuzentzeko, kontu-hartzailetzak bere txostenean dioen bezala.

- Egoera zail horrek berarekin ekarri du diruzaintzako tentsio handiak izatea, eta, horrenbestez, kanpoko finantziatziora jo behar izatea, dela maileguren, dela diruzaintzako kredituen, aurrerakinen eta geroratzeen bidez. Horrek guztiak bere finantza-kostua dauka.

VI.8.3. Langile-gastuak

Honakoak ikusi ditugu:

- 2011ko plantilla organikoa Nafarroako Auzitegi Nagusiak deuseztatu zuen, zeren eta ez baitzegoen sartuta hura onetsi zeneko Osoko Bilkuraren gai zerrendan.

- Plantilla organiko horrek ez ditu jasotzen ez lanpostuen zerrenda, ez lanpostuen ezaugarriak; izan ere, 39 langile finkoen zerrenda izendun bat baizik ez da. Gainera, zerrenda horretan, zenbait kasutan, akatsak aurkitu ditugu izenetan eta antzinatasunaren datan.

- 2011ko abenduaren 31n, zahar-etxean, guztira, lanaldi osoko 42,93 langilek egiten dute lan. Hori-etatik, 30 finkoak dira eta 12,93 aldi baterakoak; langile guztietatik, 21,93 lanpostu zaharren zaindariai dagozkie.

- Haien lansari baldintzak dagokien hitzarmen kolektiboan araututa daude.

- Ez dira egiten langileei buruzko behar diren espediente administratiboak.

- Langile finkoen kontratazioa, funtsean, 1999an eta 2007an egin zen, oposizio-lehiaketa bidez. Gainerako lanpostu finkoen kasuan –zazpi, guztira–, ez dago dokumentu bidez jasota zein sarrera-prozeduraren bitartez sartu ziren.

- Langile finkoak bi bidetatik kontratatzen dira: iraupen luzeko kontratueterako, aurreko oposizioa gainditu bai baina lanposturik lortu ez dutenen zerrenda erabiltzen da; iraupen laburreko kontratueterako, berriz, zerrenda baremodun bat erabiltzen da. Ez da agiri bidez berariaz jasotzen kasu bakoitzerako zein hautapen-prozedura erabili den.

- Gaur egun, zaharren zaindariai izateko hiru lanposturen oposizioaren amaierako fasera iritsi da. Hartan, 30 pertsona daude oposizioa gainditu dutenak, eta horrekin eratzen den zerrenda geroko kontratazioeterako euskarria izanen da.

- Nomina aztertuta, nabarmentzen dugu langileen espedienteak osatu gabe daudela; bereziki, honakoak falta dituzte: lanpostura sartzeko prozedura; lanpostua jabetzan lortu aurreko aldi baterako kontratuak; bestelako kontratu-aldaketak; urteroko familia-egoera; PFEZaren atxikipena handitzeko banakako eskariak, eta abar. Bestalde, antzinatasunarengatiko eta atzerapenengatiko ordainketa guztiak ez daude behar bezala oinarrituta dagozkien espedienteetan.

- 2011n, langile guztiei aplikatu zitzaizen lansarien izoztea.

VI.8.4. Zorpetzea eta diruzaintza

- 2011ko abenduaren 31n, jasotako mailegutik ordaintzeke dagoen saldoa 168.974 eurokoa da; ekitaldi horretan, mailegu horrek 4.994 euroko gastua ekarri du interesetan, eta 42.373 eurokoa, berriz, kapitalaren amortizazioan. Maileguak 2015ean du muga-eguna.

- Halaber, diruzaintza-kredituko bi linea dauzka, 50.000 eurokoa bata eta 100.000 eurokoa bestea. Linea horiek 2.178 euroko gastua ekarri dute 2011n.

- Nafarroako Gobernuarekiko ituntzeak berarekin ekarri zuen 51.322 euroko banku-abala formalizatu behar izatea, eta horrek 1.277 euroko finantza-gastuak ekarri ditu. Abala ez dago kontabilitatean erregistraturik.

- Diruzaintzaren egoera zaila dela-eta kontu korrontean ekitaldiko 81 egunetan zorpekoak egon dira; zorpeko horiek, batez beste, hiru mila euro ingurukoak izan dira. Zorpeko horiek ehuneko 25aren inguruko interes-tasak sortu dituzte.

- 2011ko abenduaren 31n, Ogasun Publikoarekin lan-atxikipenengatik sortutako zorra 30.023 eurokoa da. Saldo horretatik, 14.497 euro 2010eko hirugarren hiruhilekoko atxikipenei dagozkie,

eta bere garaian ez ziren ordaindu likidezia-faltarengatik; hiruhileko horren ordainketak 1.096 euroko gainkargua ekarri du.

- 2011ko abenduaren 31n, Gizarte Segurantzaren kuoten ekitaldiko ordaindu gabeko saldoa – normalean kutxa-irizpidearekin kontabilizatzen dena– 46.218 eurokoa zen; saldo hori bat dator 2011ko urtarrileko kotizazioekin –24.945 euro–, zeinak akats bat tarteko bikoiztuta baitaude, eta azaroko kotizazioen geroratzearekin –21.273 euro–. Bikoizte horrek berarekin ekarri du zahar-etxearen 2011ko gastuak gehiegi baloratuta egotea, eta eragin berezia dauka diruzaintzako gerakina finkatzerakoan.

- Data horretan bertan, Gizarte Segurantzako kuoten guztizko geroratzea 25.412 eurokoa izan zen; zenbateko hori 2010etik 2011ra bitarteko ekitaldiei zegokien. Geroratze horiek 988 euroko gastua ekarri dute, interesengatik, 2011n.

- Zahar-etxeak Udalarekin daukan zorra. Udalaren beraren kontabilitate-informazioaren arabera, zahar-etxeak 171.086 euroko zorra dauka guztira; zor hori sortu da, funtsean, finantza-betebeharrei konponbidea emateko emandako aurrerakinetatik. Zahar-etxearen kontabilitatean, zor hori 217.652 eurokoa da. Aurreko kopuruarekin dagoen aldea heldu da bai egozketan izandako akats batetik, bai konpentsazio bat ez erregistratzeatik. Arrazoizko zor batzuk badaude aurrerakin horiek Udalari itzultzeari buruz, eta hori dela medio kontabilitatearen egoera-orrien informazioa aldatuta dago.

- 2008an, zahar-etxeak partikular baten jaraunspen bat onartu zuen, 285.453 eurokoa. Funtsean, eskudirua, etxebizitza bat eta bi inbertsio-funts bermedunek osatzen zuten jaraunspena. Eskudirua –2011ko abenduaren 31n, 9.459 euro ziren– inbertsioak finantzatzeko erabili da; higezina, berriz, besterendu egin da; eta inbertsio-funtsek 112.300 euroko hasierako balioa dute. Funts horien errentagarritasuna erreskatatzen direnean gauzatuko da egiazki. Ulertezin gertatzen da, bai ikuspuntu ekonomiko-finantzariotik, bai kudeaketa egokiaren ikuspuntutik, haiek ez erabiltzea diruzaintzako egoera zailari aurre egiteko.

- Zahar-etxearen finantza-egoerak berarekin ekarri du interesengatik gastuek, komisioek eta gainkarguek guztira 14.108 euro egitea; hau da, urte horretako gastuen ehuneko bat. Zenbateko hori honela banakatzen da:

(Eurotan)	
2011ko finantza-gastuak	Zenbatekoa
Maileguaren interesak	4.994
Diruzaintzako kredituen interesak	2.178
Aurrerakinen eta geroratzeen komisioak	4.677
Gainditutakoaren ondoriozko komisioak	1.118
Gainditutakoaren ondoriozko interesak	787
Zorpekoengatik gastuak	176
Bestelako gastu finantzarioak	178
Guztira	14.108

- Ordainketak bide telematiko egiten dira, bi sinadurarekin: zuzendariarena eta alkatearena.
- Ez dago eskudiruko kutxaren funtzionamenduari buruzko arau erregulatzailerik.

Horrenbestez, zahar-etxearen diru-sarrera berekiek aukera ematen dute soilik bere funtzionamendu gastuak estaltzeko; finantza-zama eta inbertsioak, berriz, estaldurarik gabe geratzen dira. Hori dela eta, diruzaintzako tentsio handiak dauka Udalak, eta kontuetan zorpekoak izaten ditu. Horrek berarekin ekartzen du aurrerakin eta geroratzeak eskatu behar izatea, eta ordainketa handiak egin behar izatea finantza-gastuak direla eta. Halaber, inbertsio-funts batzuk badauzka, zeinak, zuzen erabilita, diruzaintzako tentsio horiek gutxituko bailituzkete.

Hona gure gomendioak:

- *Udalak, bere borondate politikoa hori baldin bada, behar diren neurriak hartu behar ditu zahar-etxearen bideragarritasun finantzarioa bermatzeko eta, azken batean, zerbitzu horren*

prestazioarekin jarraitzeko. Horrek eskatuko luke akordio, enkargu, kontratu edo beste edozein motatako ituntze-formula bat egitea, aldean eskubideak eta betebeharrak arautze aldera; halaber, zahar-etxearen finantziario iturriak aztertu beharko lirateke, eta, kasua bada, Udalak zahar-etxearen finantziario egin beharreko aurrekontu-ekarpena –funtzionamendurako dirulaguntza baten bidez– arautu beharko litzateke.

- *Zahar-etxearen zuzendaritza-eginkizuna bultzatzea edo indartzea, behar diren giza baliabideekin eta baliabide materialekin.*

- *Indarreko legedia aplikatzea, bereziki aurrekontuen eta kontabilitatearen esparruetan eta langileen kudeaketaren esparruan.*

- *Espediente bat egitea langile bakoitzarentzat, eta bertan oinarritako dokumentazio administratiboa jasotzea.*

- *Udalaren barne kontroleko organoen jarduteko prozedurak definitzea.*

- *Eskura dauden inbertsio funtsak modu arrazionalen erabiltzea, diruzaintzaren kudeaketa hobetze aldera.*

VI.9. UREN UDAL BATZARRAREN PATRONATUA

Cintruenigo herriaren uren eta saneamenduaren udal zerbitzuaren erregelamendua Nafarroako Foru Diputazioak onetsi zuen 1948ko azaroaren 18an. Gero, 1953ko ekainaren 26an, Hogeiko Batzarraren erabakiz, aldaketa batzuk egin zitzaizkion.

Uren Batzarra herriko bizilagunentzako uren horniduraz eta saneamenduaz arduratzen da. Batzar hori sei pertsonak osatzen dute; horietatik, hiru Udalekoak dira eta gainerakoak arlo horretan ezagutza praktikoa dituzten bizilagunak dira.

2011ko abenduaren 31n, Batzarrak ez du langile berekirik.

VI.9.1. Alderdi orokorrak

- 1948ko eta 1953ko estatutuek uren udal zerbitzu baten funtzionamendua arautzen dute, ez erakunde autonomo baten funtzionamendua.

- Kudeaketaren ardura osoa alkatetzan bilduta dago Kudeaketa administratiboa eta kontabilitatekoa Udaleko langileek egiten dute, lanaldi partzialen: administrari bat langileen gaiak arduratzen da; beste administrari bat jardueraren gainerakoaz (diruzaintza, erroldak, kontabilitatea eta abar).

- Ez da prozedurarik diseinatu Udaleko barne kontroleko unitateek kontrol sistema bat ezar dezaten. Udaleko kontu-hartzaileak, halere, aurrekontu-betetzearen amaierako egoera-orriak aztertzen ditu.

- Finantziarioa, funtsean, bizilagunek uraren kontsumoarengatik ordaintzen duten kuotetatik heldu dena da. Azken urteetan, 2011n izan ezik, ez dago jasota Udalak inolako ekarpenik egin duenik.

- Egindako azterketan ikusten da banku-entitateek nahaste batzuk izan dituztela Udalaren eta Batzarraren artean, gastuaren titulartasuna eta hari dagokion ordainketa direla eta.

- Ikusi dugu interesdunak eskatuta hasi zen tasa baten likidazioa deuseztatu dela, nahiz eta asmo hori ezesten zuen txosten tekniko bat eduki.

- Ez dago ondasunen inbentariarik.

VI.9.2. 2011ko aurrekontu-betetzea

B taulan, 2011ko aurrekontuaren likidazioa eta aurrekontuaren adierazle nagusiak erakusten ditugu.

B taula. Udalaren Uren Batzarraren 2011ko aurrekontuaren likidazioa

DIRU-SARRERAK 2011

Kapitulua	Izendapena	Hasierako kredituak	Aldak.	Behin betiko kredituak	Aitortutako eskubideak	Betetako portzentajea	Kobrantsak
3	Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	568.800	0	568.800	574.439	101	537.427
4	Transferentzia arruntak	146.966	0	146.966	146.966	100	0
5	Ondare bidezko diru-sarrerak eta herri-aprobetxamenduak	9.015	0	9.015	9.015	100	0
7	Kapital transferentziak eta bestelako kapital dirusarrerak	72.000	0	72.000	0	-	0
Guztira		796.781	0	796.781	730.420	92	537.427

2011ko GASTUAK

Kapitulua	Izendapena	Hasierako kredituak	Aldak.	Behin betiko kredituak	Aitortutako betebeharrak	Betetako portzentajea	Ordaindutakoa
1	Langile-gastuak	60.917	0	60.917	41.756	69	41.756
2	Gastuak, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	397.650	0	397.650	391.458	98	349.729
3	Finantza-gastuak	16.101	0	16.101	17.392	108	17.392
4	Transferentzia arruntak	146.966	0	146.966	45.611	31	0
6	Inbertsio errealak	90.000	0	90.000	55.000	61	27.500
7	Kapital transferentziak	26.691	0	26.691	0	0	0
9	Finantza-pasiboak	58.456	0	58.456	58.456	100	58.456
Guztira		796.781	0	796.781	609.673	77	494.833

Magnitudeak	Zenbatekoa
Aurrekontu-emitza	120.747
Aurrezki garbia	175.747
Diruzaintzako gerakina, guztira	-46.477
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-46.477
Zor bizia	779.195
Zor biziaren ehunekoak, diru-sarrera arrunten gai-	107

Horri buruz ondokoa adierazi beharra dugu:

- Ez da gastuetarako kreditu-mugaren printzipioa errespetatzen; izan ere, 3. kapituluko gastuak kreditu-aurreikuspenak gainditzen ditu.
- Gastuetan, ehuneko 64 ondasun arruntei eta zerbitzuei dagozkie, eta langile gastuak ehuneko zazpi dira. Finantza-zama gastu osoaren ehuneko 12 da.
- Gastuetan, halaber, aipatu behar dugu ez dela bete mailegu bat finantzatzeko Uren Mankomunitateari egin beharreko kapital-transferentzia, hasiera batez 26.691 euroan finkatuta zegoena. Halaber, mankomunitate horri bere diruzaintza-gerakin eta aurrezki garbi negatiboa finantzatzeko egin beharreko ekarpen arrunta soilik partzialki bete da. Ekarpene horrek 146.966 euroko gastu-aurreikuspena zeukan, eta soilik 45.611 euroko gastuak aitortu dira, zenbateko hori ordaintzeke zegoen abenduaren 31n.
- Diru-sarreretan, ehuneko ia 79 bizilagunek uren kontsumoarengatik eta saneamenduarengatik ordaintzen duten kuotei dagozkie. Ehuneko 20 Udalaren diru-laguntzatik heldu dira. Diru-laguntza hori abenduaren 31n kobratzeke dago, eta Uren Mankomunitatearen defizita finantzatzeari atxikita dago.
- Aurrekontu-emaizta positiboa da, 120.747 eurokoa.
- Finantza-egoera zaila ikusten da, eta horrek berarekin dakar gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina negatiboa izatea, -46.477 eurokoa. Ez dira legedi indardunean aurreikusitako neurriak hartu magnitude negatibo hori zuzentzeko, kontu-hartzaileak bere txostenean dioten bezala.
- Zor bizia 779.195 eurokoa da, eta diru-sarrera arrunten ehuneko 107 egiten du. Portzentaje hori ehuneko 75a gainditzen du, horixe baita zorpetze berria eskatzeko 2011n ezarritako legezko muga. Mailegu horiek hornidura-sareetako obrak finantzatzera bideratu ziren.
- Itxizko ekitaldietatik egiteke dauden ordaintzen egoera-orriaren barruan, Mankomunitatearekin hartutako 174.490 euroko zor bat badago, 2009ko ekitaldiko ur hornidurei dagokiena. Zenbateko hori Udalak ordaindu zuen zuzenean; halaber, NILSaren kasuan, egiteke dauden ordaintzen artean, 2009ko kanona agertzen da -187.721 euro-, zeina, era berean, Udalak ordaindu baitzuen. Horrenbestez, egoera-orri hori doitu egin beharra dago, hartzekoduna zuzen identifikatze aldera.

VI.9.3. Langileak

2008tik matxura eta konponketa txikiez arduratzen diren langileak Uren Batzarrak kontratatzen ditu; lehenago, eginkizun horiek Udalak berak kontratatutako langileek hartzen zituzten beren gain.

2011ko ekitaldian, Batzarrak aldi baterako lan-kontratua duten bi langile dauzka. Irailetik aurrera, ez zitzaizkien kontratuak berritu eta ez zen, ezta ere, langile berririk hartu. Urte horretan, Batzarraren 1. kapituluari egotzitako aurrekontu-gastua, lan-kontratudun horiei lansariak ordaintzeari dagokiona, 29.543 eurokoa izan zen, eta Gizarte Segurantzari haien kotizazioak ordaintzeari dagokiona, berriz, 12.213 eurokoa.

2011ko irailetik aurrera, konponketen eta matxuren ondoriozko lanak Udaleko obren brigadako langileek egiten dituzte. Udalak Batzarrari emandako zerbitzuengatik guztira egindako gastua gehi dagokion BEZa fakturatzen dio; baldin eta jarduketa horiek ordutegi arruntaz kanpo egiten badira, Udalak bere langileei aparteko orduak edo egindako aparteko lanaldiak ordaintzen dizkie. 2011n, Batzarrari ez zaio inongo zenbatekorik fakturatu kontzeptu horrengatik; hala eta guztiz ere, hori kudeaketa-arazoei zor zaie, zeren eta 2013an, Udalak kalkulatu baitu Batzarrari guztira 5.138 eta 14.011 euro (BEZik gabe) fakturatu behar dizkiola, 2011n eta 2012an emandako zerbitzuengatik, hurrenez hurren.

VI.9.4. Udalaren eta Uren Batzarraren arteko finantza-harremanak.

Udalaren eta Batzarraren artean guztira egindako eragiketak egiaztatze aldera, honako taula aurkezten dugu, aurrekontuz kanpoko hartzekodunen eta zordunen egoera-orrietan eskura da-
goen informazioarekin:

Honakoak	emandako	Udalaren alde	Uren Batzarraren alde	Saldoa
Udala		882.666	1.004.653	-121.987
Uren Batzarra		1.002.818	783.185	-219.633
Aldeak (balio absolututan)		120.152	221.468	

Lehenago aipatu dugun bezala, ikusten da banku-entitateek nahaste batzuk izan dituztela Udalaren eta Batzarraren artean, gastuaren titulartasuna eta hari dagokion ordainketa direla eta. Gainera, entitate bakoitzaren diruzaintzaren egoeraren arabera, ordainketa/kobrantsa batzuk beste entitatearen kontura egiten dira.

Ezin izan dira ez berdinkatu ez identifikatu bi informazio iturri horien artean dauden aldeak.

Gomendatzen dugu egindako eragiketen multzoa azter dadila, entitate bakoitzaren zorren eta hartzekoen posizioa egoki islatze aldera.

VI.9.5. Udalak/Uren Batzarrak Cascanteko, Cintruenigoko eta Fiteroko Ur Mankomunitatearekin dauzkan harreman finantzarioak

Mankomunitate horrek goi presioko ur horniduraren zerbitzua ematen du aipatutako hiru udalerrietan. 2011ra arte ura bai Lodosako Ubideko Erabiltzaileen Erkidego Orokorretik, bai ureztatzaileen sindikatutik hartzen zituen. Data horretatik aurrera soilik aipatutako erkidegoak fakturatzen du zerbitzu horrengatik³.

Mankomunitate horretan diruzaintzako gerakin negatiboa eta aurrezki garbi negatiboa badaudenez, eta bi milioi euroko inbertsio bat finantzatu beharra dagoenez mailegu bat hartzera jotzeko aukerarik izan gabe, erabaki da mankomunitatea osatzen duten udalei eskatzea aparteko ekarpen bat egin dezatela defizit hori finantzatzeko, hartara aipatutako inbertsiorako kanpoko finantziarioa lortu ahal izateko.

Cintruenigoko Udalari 146.966 euro ordaintzea dagokio. Zenbateko hori Uren Batzarrari ordaindu zion, batzarrak gero Mankomunitateari ordain ziezaion.

Aldi berean, Mankomunitateko kontu-hartzaitzak Erkidego Orokorrearekin negoziatu zuen eta 170.000 euroan finkatutako aurrezki bat lortu zuen ekitaldian hornitutako uraren fakturan⁴. Aurrezki horren ondorioz, Uren Batzarraren ekarpena 45.611 euroraino jaitsi zen. Kopuru hori 2012ko urtarrilean ordaindu zen. Ez Udalaren, ez Uren Batzarraren kontabilitateko egoera-orriak ez dira zenbateko horren arabera doitu.

Aurrekoa alde batera utzita, Udalak honako gastuak fakturatzen dizkio Mankomunitateari:

a) Udalaren obretarako brigadako langileek zenbait lan egiten dituzte Mankomunitateko sare eta instalazioetan izaten diren matxuretan eta konponketetan. Udalak aipatutako mankomunitateari emandako zerbitzuen guztizko gastua fakturatzen dio, gehi dagokion BEZa. Baldin eta jarduketa horiek ordutegi arruntaz kanpo egiten badira, Udalak bere langileei aparteko orduak edo egindako aparteko lanaldiak ordaintzen dizkie. 2011n, kontzeptu hori dela eta –lan eskua eta makineria– 9.417 euro (BEZik gabe) fakturatu zaizkio guztira Mankomunitateari.

b) Udaleko langileek Mankomunitatearen kontabilitatea eramaten emandako orduak. Horrengatik, 2011n, 2.860 euro fakturatu dira guztira (BEZik gabe).

³ Udalak aurkeztutako alegazioaren bidez aldatutako lerrokada.

⁴ Udalak aurkeztutako alegazioaren bidez aldatutako lerrokada.

Laburbilduz eta amaierako ondorio gisa, Udal Batzarrak ur hornidura dela-eta egun duen egituraketak suposatzen du tresna-izaerako ente bat tartean egotea, baina ente horrek ia edukirik ez du, eta giza baliabiderik eta baliabide materialik ere ez du. Horrek, izan ere, bereziki zailtzen du Udalaren kudeaketa bera.

Gomendatzen dugu Udalak udal batzar hori desegin dezala eta bere gain har ditzala nahi-taezko zerbitzu publiko hori emateko udal unitate administratiboak.

VII. CINTRUÉNIGO DE SERVICIOS MUNICIPALES, S.L.

Udalak 1991n eratu zuen udal sozietate hori, 6.010 euroko kapital sozialarekin. Kapital hori osorik Udalak harpidetu eta ordaindu zuen.

Bere estatutuen arabera, haren helburu soziala da Udalak esleitutako gisa guztietako zerbitzuak ematea eta obra eta konponketa-lan txikiak egitea; praktikan, honakoak betetzen ditu, funtsean:

- Ikastetxeetako eta bestelako udal instalazioetako garbiketa, udaletxea kenduta.
- Udal instalazioetako atezaintza zerbitzua.
- Hirugarren adinekoentzako fisioterapia.

Egoitza soziala udaletxean bertan du.

2011n, 21 langile dauzka guztira: 16 garbitzaile –bat bakarra lanaldi osoan–, lau atezain eta fisioterapeuta bat –zahar-etxearekin batera–. Hau da, bost pertsona dauzka lanaldi osoan eta gainerakoak, berriz, lanaldi partzialean.

Urteko kontu laburtuak aurkezten ditu –ikus txosten honen eranskina–, enpresa txiki eta ertainentzako kontabilitate-planaren arabera, ondarearen aldaketei buruzko aginduzkoa den egoerorria jaso gabe.

C taulan, sozietate horren 2011ko balantzea eta emaitzen kontua ageri dira.

C taula. "Cintruénigo de Servicios Municipales SL" sozietatearen 2011ko urteko kontu laburtuak.

2011ko egoera-balantze laburtua

Aktiboa

(Eurotan)

	2011	(^o)2010
D. Aktibo Zirkulatuak	7.995	-21.676
III. Zordunak	5.830	-29.741
Bezeroak, salmenten eta zerbitzuen ondorioz	0	-35.216
Bezeroak	0	-35.216
Ogasun Publikoa, hainbat kontzepturengatik zordun	5.830	5.474
VI. Diruzaintza	2.165	8.065
Bankuak eta kreditu-erakundeak, ageriko kontuak	2.165	8.065
Aktiboa, guztira	7.995	-21.676

Pasiboa

(Eurotan)

	2011	(^o)2010
Funts berekiak	2.403	-26.320
I. Kapital soziala	6.010	6.010
V. Aurreko ekitaldietako emaitzak	-32.330	-1.621
VI. Galerak eta irabaziak	28.723	-30.710
Epe laburreko hartzekodunak	5.593	4.644
IV. Merkataritzako hartzekodunak	596	60
Hornitzaileak	597	61
Zerbitzu-ematearen ondoriozko hartzekodunak	-1	-1
VI. Merkataritzaz kanpoko beste zor batzuk	4.996	4.584
Foru Ogasun Publikoa hartzekodun, kontzeptu fiskalengatik	3.642	3.409
Gizarte Segurantzaren erakundeak, hartzekodun	1.355	1.175
Pasiboa, guztira	7.995	-21.676

(*) Ikustatu gabeko ekitaldia

2011ko galera eta irabazien kontu laburtua

(Eurotan)

ZORRA			HARTZEKOA		
Gastuak	2011	(^o)2010	Diru-sarrerak	2011	(^o)2010
Hornidurak	18.471	1.667	Negoio-zifraren zenbateko garbia	354.716	229.000
Langileria-gastuak	307.251	261.733	Ustia ketaren amaierako diru-laguntzak	0	3.907
Soldata eta ordainsariak	236.985	201.993	Ustiatzeagatiko galerak	0	30.672
Enpresaren kargura dagoen Gizarte Segurantza	70.266	59.740	Finantza-emaitza negatiboak	91	38
Beste tributu batzuk	179	179	Jarduera arrunten galerak	0	30.710
Ustiatze-etekinak	28.814	0	Zerga aurreko galerak	0	30.710
Finantza-gastuak eta antzeko gastuak	92	38	Ekitaldiko emaitzak (galerak)	0	30.710
Jarduera arrunten etekinak	28.723	0			
Zerga aurreko mozkinak	28.723	0			
Ekitaldiaren emaitzak (etekinak)	28.723	0			

(*) Ikustatu gabeko ekitaldia

Egin den azterketatik, honako alderdiak azpimarratu behar ditugu:

- Ez dago kudeaketa-egiturarik, ez eta haren arduradunik ere. Eginkizun horiek alkatetzaren zuzendaritzak hartzen ditu bere gain. Kontabilitate- eta administrazio-kudeaketa arduraldi partzial-egiten du Udaleko administrari batek.

- Udalaren barne kontroleko zerbitzuek ez dute inongo eginkizunik betetzen sozietatearen jardueren gainean, eta ez dago jasota kontu-emate normalizaturik dagoenik.

- Gaur egun, haren ordainketak bide telematikoz egiten dira, jada sozietatean ez dauden pertsona batzuen pasa-hitzak erabilia.

- Udalaren enkarguak ez daude bermatuta emandako zerbitzua zein haren kostua justifikatzen dituen inongo dokumentutan. Gastu horiek ordaintzeko Udalak egiten dituen ekarpenek ez dute inongo fakturaren euskarririk, eta ez dute prestazio horri dagokion BEZaren zama; 2012an, fakturen alderdi hori zuzendu zen.

- Ekarpenei Udalean ematen zaien tratamendua –2011n, 319.500 euro egin zuten ekarpenek– diru-laguntza arruntena da, nahiz eta, beren izaera ekonomikoa dela eta, zerbitzuak emateagatiko gastuak diren; sozietatean, berriz, zerbitzu-prestazioak saltzeagatiko diru-sarreratzat hartzen dira. Horien ordainketa sozietatearen diruzaintza premien arabera egiten da, periodikotasun jakinik gabe eta baldintza zehatzik gabe.

- 2010aren amaieran, Udalak –sozietatearentzako diru-laguntzen kontusaila amaituta– 35.216 euroko aurrerakina eman zion sozietateari, abenduko nominen ordainketari aurre egin ahal izateko. Aurrerakin horrek Udalean aurrekontuz kanpoko zordun baten gisara erregistratuta jarraitzen du; sozietateak, ordea, alde bakarretik, 2011n diru-laguntza bihurtu zuen, eta ekitaldiko emaitzen kontuari egotzi zion. Egoera horrek sozietatearen zein Udalaren kontabilitateko egoera-orriak aldarazten ditu.

- 2006tik 2011ra, Udalak 1,53 milioi euro eman dizkio, guztira, sozietate horri.

- Lan-baldintzak eta langileen ordainsariak garbiketaren sektorearen hitzarmen baten bitartez daude araututa.

- Oro har, ez dago jasota sozietatean zerbitzua ematen duten langileak kontratatzeke zein prozedura erabili zen; hasiera batean, langileak aldi baterako lan-kontratuen bidez kontratatu ziren, denborarekin, ordea, badirudi finko bihurtu direla, interesdunek eskatu ahala.

- 2011n, 6 langile berri kontratatu ziren, eta soilik kasu batean –fisioterapeutarenean– dago jasota kontratazioa enplegu zerbitzu publikoen bitartez egin zela.

- Sozietateak ez ditu betetzen BEZa dela eta dauzkan betebeharrak fiskalak. Udalarik emandako zerbitzuei ez zaie dagokion BEZaren zama ezartzen; ez da zerga horren aldizkako eta urteroko deklaraziorik aurkezten. 2012an, gainera, Foru Ogasunaren jakinarazpen bat jaso da, non sozietateari 2010eko BEZa ordaintzeko eskatzen baitzaio –45.000 euro ingurukoa dela kalkulatu da–. Guztira, lau urte daude zerga-ikuskapen bat gertatzeko. Hori dela eta, 180.000 euro inguruko zor bat kalkula daiteke, kasuko zehapenak eta interesak kenduta.

- Oro har, kutxarena izaten da finantzen egoera-orriak prestatzeko erabiltzen den kontabilitate-irizpidea. Hiruhileko bakoitzaren amaieran kontabilizatzen dira egindako eragiketak.

- 2011ko emaitzen kontuko gastuak, funtsean, bi kontusailetan xehakatzen dira:

- a) Hornikuntzak, 18.471 euroko gastuarekin. Kopuru horretan oker egotzita dago azaroko langile-gastu bat, 16.504 eurokoa.

- b) Langileak eta zama sozialak, 307.251 euroko zenbatekoa egiten dutenak. Kopuru horri arestian aipatutako azaroko kopurua gehitu beharko litzaioke.

- 2011ko emaitzen kontuaren diru-sarrerak Udalaren ekarpenen bidez sortu dira. 354.716 euro egiten dute, eta zerbitzu-prestazioengatiko salmenta gisa jasota daude kontabilitatean. Kopuru horren barrenean sartzen da Udalak 2010ean emandako aurrerakina, 35.216 eurokoa.

- 2011n lortutako emaitza positiboa da, 28.723 eurokoa hain zuzen. Aurreko aurrerakina kenduta, 6.493 euroko galera lortuko genuke.
- Sozietateak ez du aitortu 2011ko kontabilitatean lortutako etekinei dagokien sozietateen gaineko zergarik.
- Balantzeko aktiboa aktibo korronteak baizik ez du osatzen. Haren barrenean, nabarmentzekoa da Ogasun Publikoaren kontua, zeina kontzeptu fiskalen zorduna baita, 5.830 euroko zenbatekoarekin; kontu horretan, hornikuntza-eragiketei dagokien BEZa islatzen da. BEZ hori aitortzen ez denez, kontu horretan metatzen joaten da. Diruzaintzako saldoek 2.165 euro egiten dute. Adierazi beharra daukagu 2010ean aktiboak, guztira, 21.676 euroko saldo negatiboa zuela.
- Balantzeko funts berekiak honakoek osatzen dituzte: kapital soziala -32.330 euro-, aurreko urteetako emaitzak -32.330 euro negatibo- eta ekitaldiko emaitzak -28.733 euro positibo-. Guztira, 2.403 euro positiboko funts bereki garbi lortzen dira. Ekitaldiko emaitza doituko bagenu, aurrerakina kenduta, funts berekiak -32.813 eurokoak izanen liriateke. 2010ean, funts bereki horiek negatiboak ziren, -26.320 eurokoak hain zuzen. Horrenbestez, sozietatea teknikoki hartzekodunen lehiaketako finantza-egoera batean egonen litzateke.

Azken batean, aurreko iruzkinek agerian jartzen dute tresna izaerako sozietate bat sortu zela berez Udalarenak diren zerbitzu batzuk emateko eta kudeaketarako inolako egiturarik gabe. Sozietate hori Udalaren funtsekin finantzatu izan da guztiz. Sozietatearen kudeaketa eskasa dela aurkitu dugu, kontabilitatearen, langileak kontratatzearen, merkataritzaren eta zergen arloetako arauen ez-betetze argiekin. Gainera, finantza-egoera oso zaila dauka, eta horretan zama are handiagoa dauka bere zerga-egoeratik erator litezkeen arazoengatik.

Gomendatzen dugu Udalak behar diren erabakiak har ditzala lan-esparruan, esparru ekonomikoan eta zerbitzuak ematearen esparruan, sozietate hori desegin eta likidatzeko.

Ignacio Cabeza del Salvador kontu-ikuskatzailea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 20an
Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

CINTRUENIGOKO UDALEKO ALKATEAK BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI BURUZ AURKEZTU-TAKO ALEGAZIOAK

Cintruenigoko Udaleko alkate-udalburu Raquel Garbajo Berdonces andreak honako alegazioak aurkeztu ditu Kontuen Ganberak 2013ko apirilean emandako ikuskapeneko behin-behineko txostenari buruz.

- Alkatetza honek uste du txostenean agertu beharko litzatekeela ezen jatorriz ikuskatu behar zen urtea 2010ekoa zela eta, auditoreek hura egiterik izan ez zutenek, kontabilitatea legez ezarritako garaian eta moduan itxi gabe zegoelako, (2012ko maiatzean onetsi zen), azkenean 2011ko ekitaldia ikuskatu zela.

- *Ondasunen inbentarioa 1995ekoa da, eta oraindik eguneratu gabe dago...* "(10. eta 22. or). Cintruenigoko Udalaren eta San Francisco de Asís zahar-etxeko ondasunen inbentarioa 2006ko apirilean gaurkotu zen, Kontuen Ganberak aurreko txostenetan egindako gomendioei jarraituz. Huescako Eurogestión Lloba SL enpresak egin zuen lan hori. Eta horrela dago jasota udal honetan, egiaztatu nahi bada ere.

- *"Zalantza batzuk badaude balio erantsiaren gaineko zergatik eratorritako araudia ez betetzeak sozietateari (Cintruénigo de Servicios Municipales SL) ekarri ahal dizkion ondorio ekonomikoei buruz. Zalantza horrek, 180.000 euro inguruko zenbatekoan kuantifikatu denak..."* (14. or.). Alkatetza honek uste du 2010eko BEZari buruzko erreklamazioak, behar den denboran eta moduan alegazioak aurkeztu zitzaizkionak –ebazteke daude alegazio horiek–, ez duela berarekin ekarri behar hurrengo ekitaldietara ere zabaltzea. Erreklamazioa 2012an egin da, 2010eko kontuak direla eta, eta kasu jakin honetan, ikuskatu den ekitaldia 2011koa da; eta gaur den egunean, ez dago inongo erreklamaziorik ekitaldi jakin horri buruz.

- *"...Udalaren Uren Batzarra, bai merkataritza sozietatea deseginez eta likidatuz..."* (15. or.). Gomendatzen dugu Udalak udal batzar hori desegin dezala eta bere gain har ditzala nahitaezko zerbitzu publiko hori emateko udal unitate administratiboak. " (53. or.). Txostenaren lehenengo ataletik 15. orrialdeko **"Laburbilduz eta amaierako ondorio gisa"** hitzetara arte, ez da inolako argudiorik ageri Udalaren Uren Batzarra desegiteko (inongo aipamenik ez, bere diru-sarrerara arrunten % 107ko zorpetzea duela esateaz aparte). Horrenbestez, gehiegizkotzat jotzen dut ondorio hori.

Gero, Udalaren Uren Batzarraren alderdi zehatzak aztertzen direnean (48. orrialdetik 53. orrialdera) agerian jartzen den bakarra da orduko lehendakaritzak kontrol falta erabatekoa zuela eta Batzarrak ez zituela bere eginkizunak betetzen, eta, hartara, honakoa irakur daiteke txostenean:

1. ... mankomunitate horri bere diruzaintza-gerakin eta aurrezki garbi negatiboa (aztertu beharko litzateke zergatik dauden gerakin eta aurrezki garbi negatibo horiek) finantzatzeko egin beharreko ekarpen arrunta soilik partzialki bete da. Ekarpene horrek 146.966 euroko gastu-aurreikuspena zeukan eta soilik 45.611 euroko gastuak aitortu dira, zeinak abenduaren 31n ordaintzeke baitaude.

2. "Ehuneko 20 Udalaren diru-laguntzatik heldu dira. Diru-laguntza hori abenduaren 31n kobratzeke dago..."

3. "Itxitako ekitaldietatik egiteke dauden ordainketen egoera-orriaren barruan, Mankomunitatearekin hartutako 174 euroko zor bat badago, 2009ko ekitaldiko ur hornidurei dagokiena. Zenbateko hori Udalak ordaindu zuen zuzenean; halaber, NILSaren kasuan, egiteke dauden ordainketen artean, 2009ko kanona agertzen da –187.721 euro–, zeina, era berean, Udalak ordaindu baitzuen".

Berriki, Cintruenigoko Udaleko talde sozialistaren ekimenez, osoko bilkura berezi bat egin zen, eguneko gai zerrendan bi puntu zituena. Puntu horietako bat Udalaren Uren Batzarra desegiteari buruzkoa zen, eta gehiengo osoz (9 boto 4 botoren aurka) ezetsi zen eskaria. Udal honek jo zuen beharrezkoa dela erakunde horri eustea: batetik, tresna izaerako beharrezko ente bat izan delako (bere langileak barne) 1948an sortu zenetik –haren bidez, hornidura eta saneamendu sareak berritzeko obren bost fase egin dira, Nafarroako Gobernuko hirurteko inbertsio planen barruan–; eta, bestetik, auzokideak presente dauden (Batzarraren erdia dira) erakunde autonomo bat delako –izan ere, alderdi hori oso garrantzitsua da erakundeak zabaltzeari buruz eta gizartearen parte hartzari buruz hitz egiten denean–.

Hori guztia dela eta, alkatetza hau ados dago Udalaren Osoko Bilkuraren gehiengoarekin; izan ere, gehiengo horrek apustu egiten du Udalaren Uren Batzarrari eustearen alde, gaur egun dagoen moduan eta orain arte bete izan dituen eginkizunekin. Hori ez da eragozpena txostenean bertan defizitak direla-eta adierazten diren alderdi guztiak sakon aztertzeko; izan ere guztiz bat gatzat haiekin.

- Mankomunitate horrek goi presioko ur horniduraren zerbitzua ematen du aipatutako hiru udalerrietan. 2011ra arte ura bai Lodosako Ubideko Erabiltzaileen Erkidego Orokorretik, bai ureztatzaileen sindikatutik hartzen zituen."

*"Aldi berean, Mankomunitateko kontu-hartzaileak Ureztatzaileen Sindikatuarekin negoziatu zuen eta 170.000 euroan finkatutako aurrezki bat lortu zuen ekitaldian hornitutako uraren fakturan. Ordura arte, sindikatuak goi presioko ur kontsumoa "edateko uraren" prezioaren arabera fakturatzen zuen (200.000€)..." (52. or.). Balizko gaizki ulertuak argitze aldera, esan beharra dago Mankomunitateak ez duela urik hartzen ureztatzaileen sindikatu bati egindako kontzesiotik, baizik eta **Lodosako Ubideko Erabiltzaileen Erkidego Orokorretik**, Ebroko Ur Konfederazioaren bidezko kontzesio administratiboaren bitartez, beste herri batzuek egiten duten bezala. Hartzen den ura "edateko uraren" kalitatea dauka, ez ureztatze uraren kalitatea, eta kontzeptu horietan ageri diren zenbatekoak aipatutako Erabiltzaileen Erkidego Orokorrek kobratzen dituenak dira.*

45. orrialdea. Langile gastuak.

2. puntua. *"Plantilla organiko horrek ez ditu jasotzen ez lanpostuen zerrenda, ez lanpostuen ezauzgarriak; izan ere, 39 langile finkoen zerrenda izendu bat baizik ez da".*

2012ko plantilla organikoa:

http://www.navarra.es/home_es/Actualidad/BON/Boletines/2012/64/Anuncio-6/

5. puntua. *"Ez dira egiten langileei buruzko behar diren espediente administratiboak."*

Ez dakit zeri buruz ari den. Langileen espedienteak artxibategi batzuetan daude, eta badakit Kontuen Ganberako langileek horietako batzuk eraman zituztela aztertzeko.

Gero, beste puntu batean, datu zehatzagoak ematen dira. Esaten da osatu gabe daudela. Espedienteak aztertuko ditugu, ahal dugun neurrian haiek osatzeko. 1999tik heldu dira espediente horiek.

6. puntua. *"... ez dago dokumentu bidez jasota zein sarrera-prozeduraren bitartez sartu ziren."*

http://www.navarra.es/home_es/Actualidad/BON/Boletines/1999/1511/Anuncio-27/

Zaharren zaindariak hartzeko 2007ko deialdia.

http://www.navarra.es/home_es/Actualidad/BON/Boletines/2007/66/Anuncio-64/

Garbitzaileak hartzeko 2007ko deialdia.

http://www.navarra.es/home_es/Actualidad/BON/Boletines/2007/66/Anuncio-68/

Sukaldariak hartzeko 2007ko deialdia.

http://www.navarra.es/home_es/Actualidad/BON/Boletines/2007/66/Anuncio-69/

EUDak hartzeko 2007ko deialdia.

http://www.navarra.es/home_es/Actualidad/BON/Boletines/2007/66/Anuncio-70/

Psikologoa hartzeko 2007ko deialdia.

http://www.navarra.es/home_es/Actualidad/BON/Boletines/2007/66/Anuncio-66/

Deialdi gehiago.

http://www.navarra.es/home_es/Actualidad/BON/Boletines/2001/111Anuncio-51/

http://www.navarra.es/home_es/Actualidad/BON/Boletines/1999/79/Anuncio-107/

Aurreko guztia alde batera utzita, alkatetza honek adierazten du guztiz prest dagoela Udal honen funtzionamenduan behar diren aldaketak egiteko, Kontuen Ganberak txosten honetan emandako gomendioei jarraituz.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiet Kontuen Ganberako langileei txosten hau prestatzeko garaian egin duten lanarengatik.

Cintruenigon, 2013ko maiatzaren 10ean.

KONTUEN GANBARAREN ERANTZUNA, CINTRUENIGOKO UDALEKO ALKATEAK BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTU DIZKION ALEGAZIOEI DAGOKIENA.

Alkateak aurkeztutako alegazioak jaso eta aztertu ondoren, Ganbera honek honakoa adierazi behar du:

1. Nafarroako Parlamentuaren eskaria 2011ko martxoaren 4an egin zen, eta bera Ganbera honen 2011ko ekitaldiko fiskalizazio programan sartu zen hasiera batez. Alabaina, 2010eko kontuak ez ziren 2012ko maiatzera arte onetsi. Informazio hori eskuratu zenean, Ganberako lantaldeak beste jarduketak batzuetan ari ziren, eta Udaletik jasotako informazioen arabera, 2011ko kontuak laster onetsiko ziren –2012ko urrian onetsi ziren egiazki–. Hori dela eta, Kontuen Ganberak erabaki zuen 2011ko kontuak fiskalizatzea, zeren eta arrazoizkoagoa eta egokiagoa baitzen onetsitako azken kontuak aztertzea.

2. Inbentarioa dela eta. Jasota dago 2006an faktura bat ordaindu zela “inbentarioko eta ondareko ondasunen zerrenda egitea” kontzeptua zela eta. Halere, lan horren emaitzak ez ziren kontabilitatera eramanez, eta ez zen ez prozedura administratiboak, ez prozedura informatikoak ezarri haiek mantentzeko eta gaurkotzeko. Ez dago jasota, ezta ere, Udalak muntako inongo jarduketarik egin izana inbentario hori dela eta. Horrenbestez, aztertutako balantzeko datuak 1995eko inbentarioari dagozkio.

3. Udal-sozietatearen BEZa. Dauzkagun informazioen arabera, sortu zenetik sozietateak ez ditu egin zerga hori dela-eta aginduzkoak diren aitortpenak. Ez-betetze horretatik heldu litekeen gorabehera ekonomikoa, arau indardunen arabera, azken lau urteei erreparatuta kuantifikatu da.

4. Uren Batzarra. Txostenak gomendio bat jasotzen du hura desegiteari buruz, zeren eta jotzen baita bereizitako erakunde horrek ondorio formalak baizik ez duela, eta Udalaren kudeaketa zaildu eta nahasi besterik ez duela egiten. Hura mantentzeari ala ez mantentzeari buruzko eskumena Udalarena da guztiz, baina hari eusteko alegatzen diren arrazoiek –egindako obrak eta auzokideen presentzia– ez dute ematen, gaur den egunean eta egungo legeei erreparatuta, horretarako behar adinakoa. Bestalde, 2011tik, Uren Batzarrak ez du langile berekirik.

5. Cascante, Fitero eta Cintruenigoko Ur Mankomunitatea. Aurkeztutako alegazioa Lodosako Ubideko Erabiltzaileen Erkidego Orokorra du ardatz, baina ahaztu egiten da 2011ra arte ura ureztatzailen sindikatu baten eskutik ere hartzen zela. Behin betiko txostena aldatu da, “ureztatzailen sindikatu” hitzen ordez “Lodosako Ubideko Erabiltzaileen Erkidego Orokorra” hitzak erabiltzeko.

6. Zahar-etxeko langileak:

- a. Onetsitako plantilla organikoa osatugabea da, eta ez ditu betetzen ez Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legeko 233. eta 235. artikulua, ez Nafarroako Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Langileen Estatutuko 19. eta 20. artikulua (251/1993 LFD) ere.
- b. Ezin da ulertu langileei buruzko espedienterik dagoenik, aipatutako Langileen Estatutuko 21. artikuluan ezarritako terminoetan, baldin eta langile bakoitzari buruzko oinarritzko dokumentazio administratiboa falta bada.
- c. Txostenean esaten da ez dela jaso dokumentaziorik dagoenik zenbait lanpostu finko eta aldi baterako lanpostu betetzeko aplikatu den prozedurari buruz. Alegazioan jasotako erreferentziak, lanpostuak betetzeko modua egiaztatu ahal izan zeneko kasuei dagozkie, eta horrelaxe jasota dago, berriaz, txostenean.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

